

TOKIKOM

2012ko uztaila | 117. zenbakia

# ailkor

txorierriko aldizkari

Alazne Etxebarria, diseinatzailea

## Estilo propioa





Parte hartu  
gure jaietan



Ayuntamiento de  
**Lezama** ko Udala

jaiak euskaraz bizi!

**Gaztedi**  
berria *tavern*

- Menuak, astegun zein asteburuetan •
- Otarkeak eta **anoak** • 40 laguntzako **jantokia**
- Hainbat **garagardo** eta **ron** mota •
- Musika ezberdina, **giro** ederra
- **Telebista** erraldoia •
- Jokoak**: dardoak, futbolina, billar • **WiFi** gunea
- **Terraza** eta aparkalekua •
- Rabak**, igande eta jai egunetan •



• Aretxalde auzoa, 141  
• 48196 Lezama  
• Tel.: 94 455 61 44

**CONSTRUCCIONES  
LANDETANE, S.L.**

ANDER ETXEBARRIA  
MIKEL ETXEBARRIA

Tfnoa, eta faxa: 94 455 65 82  
607 54 77 67  
607 23 99 42



Garaioltza auzoa, 142  
48196 LEZAMA  
Bizkaia



**OXANGOITI**

Kutur Elkartea **TABERNA**

Aretxalde, 54 - tel.: 94 455 50 37  
LEZAMA



**JAN-TOKI**  
Jatetxea



La Cruz auzoa - Tel. 94 455 61 02 - Lezama (Bizkaia)

**HARRI-BILBO**

**HARGINTZA OROKORRA**

LEHIO-ERTZEKO HARRIAK - KANTO HARRIAK - BARLASAIK - MAILAK  
ARKUAK - TXIMINIAK - HARRI-HORMITUAK - XAFLA-LANAK

**HARRORIA: DURANGON**  
E-mail: [recupresaharribilbo@euskalnet.net](mailto:recupresaharribilbo@euskalnet.net)

**LANTEGIA:**  
Kurtzea Industrialdea, 2/g • 48196 LEZAMA  
Tel.: 94 452 10 71

**ERAKUSTOKIA:**  
Itxaropena, 2 • 48100 MUNGIA  
Tel.: 94 674 33 40

**LA  
GUN  
KOR**

aretxalde, 68 - 48196 lezama  
t. 944 556 538 - faxa 944 555 084  
[lagunkor@hotmail.com](mailto:lagunkor@hotmail.com)

ANOKULARITZA FISKALA LABORALA KONTABLEA  
ZERBITZU BULEGOA



**Argitaratzailea:** TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)  
Tel.: 94 452 34 47  
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

**Zuzendaria:** Xabier Goienetxe

**Erredakzio burua:** Itxaso Marina

**Erredakzio taldea:** Maite Lekerika, Gaizka Eguskiza, Jon Goikouria Larrabeiti, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

**Kolaboratzaileak:** Igor Urrutikoetxea, Asier Saenz, Lurdes Etxebarria, Eder Merino, Itsasne Zubiri, Jose Angel Mentxaka, Bestorrene, Oihana Astobieta, Belen Gana eta Ines Serrano

**Zuzentzaileak:** Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zalzo

**Publizitatea:** Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

**Banaketa:** Egunon

**Maketatzailea:** Gaizka Eguskiza

**Inprimategia:** Gertu

**Ale kopurua:** 7.000

**Lege gordailua:** BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.




KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



diruz lagundutako aldizkaria



12 Guanaguanare dantza taldea



16 Oskar Benegas idazle berria



24 Larrabetzu eta Lezamako jaiak

- 4 Eritxia**
- 5 Laburrak eta albisteak**
- 11 Iruditan... Derioko piperrak**
- 12 Gurean izan da... Guanaguanare dantza taldea**
- 14 Gaztea eta... Xabi Astudillo**
- 16 Oskar Benegas idazle berria**
- 18 Alazne Etxebarria, diseinatzailea**
- 22 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea**
- 24 Larrabetzuko jaiak**
- 26 Lezamako jaiak**
- 30 Taldeak... Gotibehera Lezamako taldea**
- 32 Landabarri bizitegi-auzoa**
- 34 Teknologia**
- 35 Aikorrizketan... Euskal eta erdal artaldeak**
- 36 Sukaldaritza**
- 37 Denborapasa**
- 38 Agenda**







**IGOR URRUTIKOETXEA**  
(LABeko nazioarteko idazkaria)

**B**arkatu nazala Pinotxo maitagarriak, baina azkenaldian askotan gogoratzen naiz berarekin. Izan ere, ikasle baldarrak atera zaizkio, egunero gezurretan dabiltzanak, baina barregura eman beharrean, negar eragiten digutenak. Krisi kapitalistaren ondorioz dirurik ez dagoela esaten digute gure gaur egungo Pinotxoek, komunikabide nagusiek, Europar Batasuneko estatuetako agintari gorenak eta haien nagusi diren bankariek. Ez omen dago dirurik osasungintzarako, hezkuntzarako, euskararako, gastu sozialerako eta

enparauearako, baina, hori dioten bitartean, armada eta polizientzat, erregea ehizan Afrika aldera joan dadin, eta gure jendartean, inork aukeratu ez dituen arren, aginte faktikoa duten bankuen nagusientzat diru publikoa barra-barra xahutzen dute.

«Mundu garatuan» inoiz izan den krisi sakonenari buruz gezurretan ari zaizkigu egunero: beharizan sozial eta kulturaletarako dirurik ez dagoela esaten ziguten, baina bankarako edo Abiadura Handiko Trenerako berehala lortzen dute. Espainiar Estatuak erreskaterik ez zuela behar errepikatzen ziguten, eta orain gutxienez 100.000 milioi emango dizkiete bankuei.

Egungo krisiaren erantzule nagusia Banka Handia dela gauza ezaguna eta onartua da. Halaber, krisi kapitalistaren iturburuan finantza-espekulazioa eta bankaren mundu mailako jokamolde okerrak daudela (ahalik eta etekin gehien zenbait eta arinen lortzea helburu dutenak).

Eta horren aurrean, zer egiten ari dira agintariak? Gu guztion dirua hartu eta ban-

kari oparitu, trukean ezer eskatu gabe. Euren hipoteka ordaindu ezinean dauden hiritarrak etxetik kanporatzen dituzten bankariei ematen ari zaizkie langileon dirua. Hau da, egoera honen erantzule ez bagara ere, zu eta ni, jende xehea, aberatsen menuaren kontua ordaintzen ari gara.

Bitartean, krisi honen erantzuleen aurka ez dago inongo zigorrik, inork ez die erantzukizun penalik eskatzen, ezta jaso dituzten etekin eta soldata izugarriak bueltatzera behartu. Islandian bankarien aurka neurriak hartu badira, eta hiritarrek hipoteken ondorioz bankarekin zuten zorraren zati bat kitatzera behartzea posible izan bada, zergatik ez dute gauza bera egiten Europako gainontzeko herrialdeetan? Are larriagoa dena, zergatik ezkutatzeko komunikabide nagusiek han hartutako neurriak? Agian, haien akziodun nagusiak bankuak ere badirelako?

Ai, Pinotxo gaixoa! Zein txikia eta kuttuna den zure sudur luzea, beste batzuen aurpegi gogorraren aldean!

## Haziak

**E**rdi hutsik dauden terrazetan, lagunartean, beste aktore bat azaldu zaigu azken asteetan. Murrizketa ekonomikoek txokoa egitea lortu dute igande goizetako oliba eta raben artean. Ohiko elementu bilakatu dira gure egunerokotasunean. Krisi ekonomiko larria bizi dugula gogorarazten digute une oro, badakigu, azken hilabeteetan ez dugu besterik entzuten, baina erreakzioak falta dira. Agintariek, gezurrez eta berbaldi hutsalez nekatuta gaude, gehiegi, erantzunen beharrean gara, korapiloa askatuko duen makilatxo magikoaren bila.



**EDER MERINO**  
(Kazetaria)

Bitartean eta bidea zimendatzeko, kultura beharrezkoa dugu aurrera egiten jakiteko. Txirotasunean eta kulturari uko eginez bizitzea baliagarria da soilik, zirko mediatikoko printzesa izendatu den sudur okertua izatera heldu nahi duenarentzat. Horregatik, korapiloa oraindik ere korapilatsuago egiten duten burmuin huts eta estatikoetatik alde egiteko, kultura beharrezko tresna dugu. Bizi dugun egoera jakiteko, ulertzeko eta erantzunak bilatzeko irtenbidea da. Utz ditzagun alde batera inora ez garamatzaten berbaldiak eta kexak, eta erein ditzagun etorkizuna argituko duten haziak, kulturaren sustraiak...

**OSKARBI**  
fotografoak  
JOSEBA APEZETXEA

TALLERIKALEA 3  
48170 ZAMUDIO BIZKAIA  
TEL. 944 520 014 / 607 400 078  
E-mail: apeze@euskalnet.net

**Ile-apaindegia**  
M<sup>a</sup> Antonia Llodio TXPI

Txorierriko etortidea, 6  
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

**luz zamudio**  
ARGI APARATUAK

Nekazari kalea, 4 (lonja) Tel./Faxa 94 452 11 60  
48170 Zamudio - Bizkaia

## Errezeta elektronikoa, lehenik Derion



Errezeta elektronikoa, e-errezeta, martxan jarri da eta, Euskal Herrian, non eta Derion hasiko dira erabiltzen estreina aldiz. Medikuek ez dute paperean errezeta gehiagorik egingo; orain tratamendu-orriak emango dituzte eta han medikamenduaren izena, dosia eta tratamenduaren epeak agertuko dira. Geroago, erabiltzaileek Osakidetzaaren txartela aurkeztu beharko dute farmazian. Botikariek txartela eskaneatuko dute eta pantailan agertuko den botika emango diote pazienteari. Eusko jaurlaritzak plan aitzindaria jarri du martxan María Dolores Fernández Derioko farmazian, eta egun gutxi barru baita Gasteizen ere.

Plana apurka-apurka zabalduko da eta 2013rako Euskal Herriko herri guztie-

tan ezarri nahi dute. Beraz, erabiltzaileek ez dituzte paperezko errezetak bota behar, Yago Ferreira Derioko botikariak aipatu duen moduan. "Etxean dituzten errezetak hona ekarri eta betiko moduan emango dizkiegu botikak. Ohiko errezetak bukatzen direnean, e-errezeta erabiltzen hasiko gara. Gaur bederatzi errezeta elektronikoa eta 200 ohiko errezeta egin ditugu; bi hilabete barru, ziurrenik kontrakoa gertatuko da". Txartel berriak abantailak baino ez ditu ekarriko. Erosoa da, medikuarenera errezeten bila joateko beharrik egongo ez delako, eta farmazian bertan zuzenean banatuko direlako. Era berean, seguruagoa eta fidagarriagoa da, botikariek informazioa zehatzagoa izango baitute.

## Euskal jaia, Altzoraren eskutik

Altzora Sondikako euskara elkar-teak Euskal jaia antolatu du lehenengo aldiz. Irailaren 22an egingo dute eta egun osoan zehar ekimen sorta zabala egongo da, adin guztikoei zuzendua eta euskal giroan murgiltzeko aproposa. Ekimenak goiz-goiz hasiko dira, Kurtze auzoan. Goizeko 11etan umeentzako zirku tailerra izango da, eta eguerdiko 12etan hegazti harraparien inguruko tailerra. Egunari erritmoz emango diote jarraipena. Hala, 13:30ean batukada-kalejira aterako da tren geltokiko aparkalekutik. Herri bazkaria 14:30ean egingo dute. Bazkariak 15 euro balioko du nagusientzat; eta 10 euro, umeentzat. Txartelak Batzokian, Egurri tabernan eta Santa Kurtzeko jaien haritik jarriko den txosnan eskura daitezke. Era berean, 635 75 35 95 telefono zenbakian erreserba daitezke. Sarrerak hartzeko azken eguna irailaren 16a izango da. Taberna ibiltaria taldeak bazkalostea girotuko du, eta Anje Duhalde musikariak kontzertua eskainiko du arratsaldeko 8etan. Erromeria Aiko taldearen eskutik izango da. Euskal jaia Sondikako Udalak babestu du.



**HARATEGIA**  
**ALBERTO**  
Arbolantxa, 4  
T: 94 452 08 25  
48170 ZAMUDIO

**ama**  
**taberna**  
Leizola plaza, 3 - Behe (Zamudio)  
94 452 91 69

**GAMINIZ**  
**JATETXEA**  
Tel/Fax: 944 317 025  
email: gaminiz@gaminiz.com  
Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa  
48170 Zamudio - Bizkaia  
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" W  
www.gaminiz.com

**ESTILISTA**  
**EVA ARDINES**  
**AmAr**  
Asteartea - Ostirala: 9etatik-19etara  
Larunbata: 9etatik-14etara  
Urbe Plaza, 1 - Behe 48170 Zamudio  
Telefonos: 94 452 04 18; (Aurreko txanda)

**EGUNEKO**  
**MENUAK**  
**ESPEZIALITATEA,**  
**TORTILLAK**  
**ILI**  
Lehendakari Leizola Plaza, 6  
48170 Zamudio  
Tel.: 94 452 04 68

## Santa Kurtze (Sondika)

### Irailak 14, barikua

- 10:00: Kalejira, Ipar-elaiak txistu taldeagaz.
- 11:00: Kalejira, Triki Xabierregaz.
- 11:30-14:00: Haurrentzako jolas parkea.
- 12:30: Mezea.
- 16:30-19:00: Umeentzako jolas parkea.
- 19:00-21:00: Diskofesta, Xaiborregaz.
- 24:00-04:00: Akerbeltz taldea.
- 04:00-06:00: Dj-a.

### Irailak 15, zapatua

- 10:00: Kalejira, Ipar-Elaiak txistu taldeagaz.
- 10:00: Marmitako Txapelketa.
- 11:00-14:00: Umeentzako jolas parkea.
- 12:00-14:00: Talo tailerra.
- 14:00: Marmitako Txapelketaren kazolak aurkeztea.
- 17:30: Futbol Txapelketa.
- 20:00-22:00: Gozategi.
- 23:30-06:00: Izargi + Boston jai.

### Irailak 16, domekea

- 10:00: Kalejira, Ipar-Elaiak txistu taldeagaz.
- 10:30-13:00: Umeen VII. Marrazketa eta Pintura Lehiaketa.
- 11:00-14:00: Umeentzako jolas parkea.
- 14:00: Pintura Lehiaketaren sariak ematea.
- 18:00: Dantzen agerraldia.



a: Juanjo Ortiz

## Txorierri beti jaietan

Datozen hilabeteotan jai nagusiak Larrabetzun eta Lezaman izango badira ere, gure bailarako herrietako hainbat auzo ere jaietan izango dira. Aurrerapena duzue ondoren.



a: Zamudio Orain

## Sandoni (Zamudio)

### Irailak 2, domeka

- Egun osoan zehar, umeentzako puzgarriak.
- 10:30: Txupinazoa.
- 11:00: Meza, ermitan.
- Auzoko nagusientzako omenaldia.
- 12:30: Dantzen agerraldia, Iru-bat taldearen eskutik.
- 16:30: Mus Txapelketa.
- 20:00: Txitxi-burruntzia.
- 22:00: Dantzaldia, Zesuma taldearekin.

### Irailak 3, astelehena

- 12:00: Meza, ermitan. Ostean, euskal kantak.
- 20:00: Idi-probak.
- 21:30: Txitxi-burruntzia.
- Dantzaldia, Zesuma taldearekin.

## Santa Kurtze (Lezama)

### Irailak 13, eguaztena

- Txupinazoa.
- Odolosteak, auzoko tabernetan (jaietako egun guztietan).

### Irailak 14, eguena. Santa Kurtze

- 12:00: Meza. Ostean, kopaua musikak girotua.
- 20:00: Idien erakustaldia.
- 22:00: Kontzertua: Adunia folk taldea.

### Irailak 15, zapatua

- 10:00: Sukalki Txapelketarako osagarriak banatzea.
- 11:00: Umeentzako jolasak.
- 11:30: Tortilla Txapelketarako izena ematea.
- 12:00: Futbito partida.
- 12:00: Meza.
- 12:30: Dantzen agerraldia, Kurtze dantza taldearen eskutik.
- 14:00: Sukalkiak eta tortillak aurkeztea eta sariak ematea.
- 14:00: Umeentzako bazkaria.
- 14:30: Jubilatuentzako bazkaria.
- 16:30: Mus partida, Zigoun tabernan.
- 17:00: Mahai-futbol Txapelketa, Gaztedi tabernan.
- 18:30: Sorginen Txapelketa.
- 19:00: Txapelketen sariak ematea.
- 19:30: Solomo eta hirugiharra bokatak.
- 20:30: Duodeno taldearen emanaldia.
- 21:30: Sorginak erretzea, suak eta txokolatada.
- 22:00: Musika eta jaien amaiera.

Txinbo kalea, 9  
48170 ZAMUDIO  
94 452 26 75

**BIDE-GORRI**

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak  
8:00etatik irekia  
WiFi gunea

**BAR BIDE-BI**

Zamudio  
Aukeratu zurea!

Goizeko 5etatik  
aurrera zabalik

Gosari bereziak

Telefonoa: 94 452 20 48  
Leizaola Lehendakaria plaza, 3

Construcciones-Reformas  
**IÑIGO BARCENA**  
Igeltserotza orokorra

Arbolantxa kalea, 8 - 1.ºz.º  
ZAMUDIO  
Tel/Fax: 94 452 29 10  
Móvil: 665 70 33 12



a: Itsasne Zubiri



## Santimami (Zamudio)

### Abuztuak 16, eguena

- 12:00: Bolandera nagusia.
- 14:30: Herri bazkaria.
- 18:00: Umeentzako jolasak.
- 21:00: Txitxi-burruntzia.
- 22:00: Dantzaldia, Trio Kalifornia taldeagaz.

### Abuztuak 17, barikua

- Puzgarriak, egun osoan zehar.
- 12:00: Meza, ermitan. Goiza Bertokoko trikitilariak girotuko dute.
- 14:00: Sukalki Txapelketa.

-16:30: XVII. Mus Arin-arina (Izena ematea, 16:00ak arte, Santimami zelaian).

- 17:30: Umeentzako tailerrak.
- 20:30: Tortilla Txapelketa.
- 21:00: Sardina jana.
- 22:00: Dantzaldia, Arizgoiti taldeagaz.
- 24:00: Sorgina erretzea eta txokolatada.

### Abuztuak 18, zapatua

- 12:00: Meza, ermitan.
- 13:00: Omenaldi-kopaua, auzoko nagusientzat.

## San Bartolome (Zamudio)

### Abuztuak 23, astelehena

- 17:00: Bolandera nagusia.
- Mus Txapelketa.
- 20:30: Txitxi-burruntzia eta ardoa.
- Erromeria, Dantza alai taldearekin.

### Abuztuak 24, martitzena

- 12:30: Meza, ermitan.
- Bakailao pil-pilean Txapelketa.
- Omenaldi-kopaua, auzoko nagusientzat.
- 13:30: Bakailao kazolak aurkeztea.
- 19:00: Idi probak.
- Erromeria, Dantza alai taldearekin.
- 01:00: Txokolatada eta erromeria.

### Abuztuak 25, eguaztena

- 12:30: Meza, ermitan.
- 13:30: Umeentzako jolasak, maskarak, eta sokatira (emakumeak gizonen kontra). Bertokoko trikitilariak alaitua.
- 20:00: Patata tortilla Txapelketa.
- Erromeria, Dantza alai taldearekin.
- 24:30: Mozorroak.
- 01:30: Txokolatada, erromeria eta jaien amaiera.

## San Migel (Zamudio)

### Irailak 29, zapatua

- 12:00: Meza eta kopaua.



## Konposta egiteko kanpaina, Larrabetzun

Larrabetzuko Udalak etxeetan eta eskolan konposta egiteko kanpaina jarriko du abian irailean. Ekimena Bizkaiko Foru Aldunditik jasotako diru-laguntzari esker sustatuko du. Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak 2008an bultzatu zuen kanpainaren ostean dator Larrabetzuko hau, eta beste berrogei bat familia konpostajearen aldera sentibera go bihurtzea du helburu. Interesa dutenek abuztuan eta irailean eman dezakete izena udaletxean. Bestetik, irailaren 25ean, arratsaldeko 7etan, hitzaldi-tailer bat antolatuko da, eta espero da bertan konpost-ontzi berriak banatzea.

## Gazteen jaia, Loion

Irailaren 22an, Gazteen jaia egingo da lehenengo aldiz Loion. Goizean zein arratsaldean hainbat ekitaldi izango dira umeei zein nerabeei zuzenduta: jolasak, bideojokoak, ikuskizunak... Gainera, gauean herriko musika txapelketa egingo da, eta Hesian taldeak kontzertua eskainiko dau. Haren ostean, musikeak jarraituko dau Oihan Vega Dj-aren eskutik. Txorierriko gainontzeko herrietako gaztetxeak ere gonbidatuta dagoz ekimenera.

## Gure Señeak elkartearen ekimenak

Gure Señeak Derioko elkarteak ekimen bi antolatu ditu irailerako. Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek Zazpikoloroa ikuskizuna eskainiko dute irailaren 12an, arratsaldeko 6etan, kiroldegian. Sarrerak irailaren 6an eta 7an ipiniko dira salgai Kultur Birikan, goizeko 11tatik 13era. Txartelek sei euro balioko dute. Bestetik, irailaren 16an kros lasterketa izango da Kepa eta Arene anaia-arreben oroimenez. Lasterketa bigarren aldiz egingo da aurtan, eta izena ematea doan izango da. Adin guztietako neska-mutilei dago zuzenduta eta goizeko 10etan hasiko da.



## Motorretarako grina

a: Itsasne Zubiri

Uztailean, Txori bikers motor elkarretaratzea egin zen Loion lehenengo aldiz. Motorrek eta larruak herria hartu zuten egun bietan ehunka lagunek hartu zuten parte ekimenean. Aipatutakoaren arabera, adibidez, lehenengo egunean, zapatuan, herrian 1.000 pertsona inguru batu ziren. Deialdia gure mugetatik harago joan zen eta motorzaleak Bizkaiko hainbat txokotatik ez ezik kanpotik ere etorri ziren: Bermeo, Muskiz, Kantabria, Asturias, Valladolid eta Bartzelona, banaka herri batzuk aipatzearren. Eta noski, txorierritarrek ere izan ziren han.

Ekimen erakargarriak egon ziren asteburu osoan. Besteak beste, motorrak jarri ziren ikusgai, jolasak antolatu ziren eta akrobazien erakustaldia egin zen. Era berean, dezibelio proba, sai-heski errea, eta ibilbideak egin ziren. Kontzertuak ere izan ziren eta opariak zozketatu zituzten. Ekimena erabat arrakastatsua izan zen eta Udala pozik



dago lortutako emaitzarekin eta erantzunarekin. Josu Andoni Begoña alkatordearen arabera, hain daude pozik, non datorren urtean berriro ere beste elkarretaratze bat egiteko asmoa baitute. Are gehiago, kluba ere sortzeko asmoa dute. Aipatu digun bezala, ekimena egin ahal izateko, laguntza eta aholkua jaso dituzte motor klub batzuetatik. Hala ere, ezinbestekotzat jo du zenbait herritarrek emandako laguntza, haiek barik ezinezkoa izango zelako motorzaleen zita hau antolatzeari.





# Lorra

BIZKAIKO NEKAZARIEN  
KOOPERATIBA ETA ELKARTEAK

## 25. urteurrena



ACCBI



LEZAMA S.C.  
ZAMUDIO S.C.  
SODUPE S.C.

**Ipar Kutxa**

laguntzailea

Garaioltza auzoa, 23  
48196 LEZAMA (BIZKAIA)  
Tel: 94 455 50 63  
Faxa: 94 455 62 45  
e-mail: [lorra@lorra-cg.net](mailto:lorra@lorra-cg.net)  
[www.lorra-cg.net](http://www.lorra-cg.net)  
[www.lursail.net](http://www.lursail.net)



AGAMUGA  
ARAMOTZ  
BAMEPE  
BIZEL



BIFE



ASGAPIR



BLAE



BBE



BITXEL



BIMOEL



Betizu



ACOL



**bihoel**



bizkaiko  
sagardogileak



ITXINA



GORBEIAZPI



**A. G. ARTAIO**  
B.I. CUETO, 141  
TEFNO. 94 610 94 33  
48880 TRUCIOS - Bizkaia



AGA



## Erdi Aroa, Derion

Derioztarrak eta bisitariak Erdi Aroan murgilduko dira irailaren 15ean eta 16an. Izan ere, herrian Erdi Aroko azoka egingo da lehenengo aldiz. Urrunetik etorritako artisauek, dontzeilek, zaldunek eta kinkilariak herriko kaleak hartuko dituzte asteburu horretan. Besteak beste, xaboi eta olio sendagarriak, egurrezko eta larruzko artikulua, bitxiak eta apaingarriak salgai jarriko dira postuetan, eta bisitariak gosea eta egarria asetzeko txosnak ere egongo dira. Horrezaz gainera, kale-jirak eta antzerkiak antolatu dituzte egun bietarako.

## Lezamako lasterketa luzeagoa izango da aurten

Irailaren 2an, domekan, "Lezamako mugetatik" mendi ibilaldia eta lasterketa egingo da zazpigarren aldiz. Ekimena herriko hainbat elkar-tek antolatzen dute. Lasterketak nobedadea ekarriko digu aurten; izan ere, Legina auzotik igaroko da, egun horretan han egongo den erromeriaz gozatzeko. Ondorioz, aurreko edizioen aldean, parte-hartzaileek kilometro bi gehiago egin beharko dituzte; guztira 27 kilometro. Izena ematea zabalik dago, eta [www.lezamakomugetatik.com](http://www.lezamakomugetatik.com) web-gunearen bidez egin behar da. Lasterketa puntuagarria izango da Euskal Federakuntzak antolatzen duen mendi lasterketen Euskal Koparako.

## Ehunka euskaltzale batu zituen Lagatzu Egunak



Pozik baino pozago dabilta Lagatzu Zamudioko euskara elkartekoak Lagatzu Egunaren aurtengo edizioak lortutako emaitzarekin. Izan ere, aurreko urteetan bezala, ekimena erabat arrakastatsua izan zen, eta egun osoan zehar ehunka euskaltzalek hartu zituzten herriko bazter-rrak. Goizean kirol maratona, txirrin bira, euskal produktuen azoka, gerra osteko eskolaren erakusketa, hamaiketakoa, joaldunak, motor jokoak eta kale-jirabira-dantza poteoa izan ziren. Herri bazkarian 558 lagun batu ziren, eta bazkalostean kantak eta jolasak izan ziren. Erromeria Joxpa taldearen eskutik izan zen. Ekimenetan herriko taldeetako ordezkariak, beste herri batzuetako euskaltzaleak eta lagunek hartu zuten parte.



**TURREGOITI**  
**JATETXEA**  
Laura eta Etorbidea, 27  
48180 Lolu-Bizkaia  
T-Faxa: 94 453 24 40  
[restauranteturregoitik.com](http://restauranteturregoitik.com)

**elekma**  
UNIBATZORREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRIAK  
TELEBISIAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TOOKIA  
lehenengo mailak • Prezioak onak  
**BOSCH, SIEMENS, BALAY**

Torrelarragoti ind., 25-3 N • 48180 Lolu  
T: 944 539 232  
[www.elekma.es](http://www.elekma.es)

**TALLERES JUAN ANDRES**  
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA  
PUNTUAN JARTZEA

Torrelarragoti ind., 8 - 216 Pab.  
Tel.: 94 452 07 09  
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

**ERREKA**  
**ETXEA**  
Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak  
Arteaga, 80  
Zamudio 48170 (Bizkaia)  
Tfnoa: 94 452 14 19  
Faxa: 94 452 26 29

**Garmendia**  
**ardoak**  
Pinoa pol., P-3B  
ZAMUDIO  
Tel/Faxa: 94 452 00 49

**HORTZ KLINIKA**  
  
Idoia Zubietta  
Osasun-zentrua & Hortz-zerbitua  
HORTZ-IMPLANTEAK - ORTODONTZIATERAPIA  
HAURRAK ZIN BELDUNA

Dr. Arriola kalea, 11 - 1. zkl. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 63 22  
Urbe plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 452 13 70





## Derioko lehen piper-sorta

Uztailean Txorierrin geratu garenok badugu altxor bat atzerrira joan direnek beste inon topatu ez dutena: Txorierriko jakiak. Tomateak, zerbak, kuiatxoak... Baserrietako ortuak dagoeneko hasi dira udako lehen fruituak ematen. Argazkian Derioko Aldekona auzoko lehen pipertxoak ditugu, eta esaera zaharrak dionez, "apaizaren lapikoa txikia baina gozoa". On egin!

Testua eta argazkia:  
Jon Goikouria Larrabeiti  
[www.flickr.com/photos/jongoikoh](http://www.flickr.com/photos/jongoikoh)

- Hestebeteak
- Iberikoak: Beher, Masan...
- Jakiak prestatzen ditugu
- Kroketak
- Aurrez prestatutako jakiak
- Haragia
- Izoztuak
- Ogia
- Produktu bereziak



**Astegunetan:** 9:30-14:30 / 17:30-20:30  
**Larunbatetan, igandetan eta jai egunetan:** 10:30-14:30  
**Abuztuko ordutegia:** 10:30-14:30

urdaitegia delicatessen

# amalur



Uribe, 14 - 48160 DERIO  
94 612 19 55  
[www.amalurderio.com](http://www.amalurderio.com)  
[info@amalurderio.com](mailto:info@amalurderio.com)

# “Dantza mundu mailakoa da”

GUANAGUANARE | Venezuelako dantza taldea

Dantza egiteko ohitura handia dugu Txorierrin. Izan ere, baditugu hainbat dantza talde eta dantzari. Portugaleteko Nazioarteko Folklore Jaialdiaren haritik, Sondikako Kultur Aretoan kanpoko konpainia bi izan ditugu ikusgai, Gorantzaileak herriko taldearekin batera: Kurdistango Sulaimaniyah eta Venezuelako Guanaguanare. Azken haiekin solasean ibili gara eta euren ibilbidearen berri eman digute.

t: Gaizka Eguskiza / a: Elai Alai

Guanaguanare kaio mota bat da, *Larus atricilla*. Gainera, Venezuelako hiria ere bada. Hark Guanaguanare zuen izena lehen, baina gaur egun laburtu egin da eta Guanare bihurtu da. Venezuelako hiri-buru espirituala da, bertan Coromotoren santutegi nazionala baitago. Eta hangoak dira Sondikara etorri diren dantzariak. Guanaguanare dantza taldea lehendabiziko aldiz ikusteko aukera izan dugu Euskal Herrian, Portugaleteko Nazioarteko Folklore Jaialdia dela-eta gurera etorri baitira.

“Ardura baino gehiago harrotasuna eman digu Venezuelatik Euskadira hurbildu den lehenengo taldea izateak”, esan digu Marcos Yepes taldeko zuzendari orokorrak. Euskal Herria ez dute orain arte ezagutu; Estatu espainiarrean, ordea, bira egin zuten 2007an. Aurten ere, Penintsulatik ibili dira eta Txorierriz gain, Burgosen, Gijonen edo Coruñan erakutsi dute euren folklorea. “Hegoamerikako eta Europako hainbat herri ezagutzen ditugu. Oro har, oso erantzun ona jaso dugu leku guztietan. Izan ere, gure ustez, dantzak ez du hizkuntzarik, ezta kolorerik ere, hau da,

mundu mailakoa da eta edonon badira ulertzeko gauza”.

Sondikan venezuelarren errepertorio koloretsuaz gozatzeko aukera izan dugu. Ronald Sanchez da taldeko arte-zuzendaria eta koreografoa, eta Marcos Yepesen iritziz, hark primeran islatu ditu herriko txoko guztien dantzak eta musikak. “Oso interesgarria da, Venezuela oso aberatsa baita folklore aldetik. Gurea, Hegoamerikako beste herrialdeei gertatzen zaien moduan, oso eklektikoa da. Hau da, hainbat lekutako eragina jaso dugu: Afrikako danborrak, Espainiako fandangoa...







Gainera, dantzariak bat egiten dute ikusleekin, eta ikuskizun biribila eskaintzen dugu”.

Sondikara ekarri dituzten dantzariak nahiko gazteak dira (16-18 urtekoak), baina Guanaguanare dantza taldeak ibilbide oparoa izan du, debuta 1987an egin zuenetik. Azken urteotan hainbat sari lortu dituzte: besteak beste, Urrezko Yacambú saria (Venezuelako garaikur nazionala) eta dantza arloko bikaintasun saria. Hiru aldiz irabazi dute Dantzari Solista Gazteen Jaialdi Nazionala, eta hori beste inork gaitu ez duen marka da. Guanaguanare taldeak eskola ere badu Venezuelen, eta hango dantzariak balet klasikoa, dantza garaikidea eta abertzalea, arpa eta herriko musika-tresna batzuk ikasten dituzte.

#### Emakumeak eta erritmoa

Taldea sortu zutenetik, lau haizeetara zabaldu nahi izan dute Venezuelako fol-



klorea Guanaguanarekoek. Euren hitzetan, sekretua “erritmoa eta emakumeen grazia” dira. “Gure herrian munduko emakumerik politenak ditugu, eta venezuelarrok goxoak gara. Ondorioz, gure nortasunari eta musikaren laguntzari esker, emozioak-eta erraz helarazten dizkiegu ikusleei”. Kaioren antzera, Guanaguanare taldekoak gurean izan dira eta gero alde egin dute. Agian haizeak berriro ekarriko ditu datorren urtean Euskal Herrira.

*“Ardura baino gehiago harrotasuna eman digu Venezuelatik Euskadira hurbildu den lehenengo taldea izateak”*

*“Venezuelako folklorea oso eklektikoa da, hau da, hainbat lekutako eragina jaso dugu”*

  
**LIBRERIA  
SONDIKA  
LIBURUDENDA**  
ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.  
**JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN**  
Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,  
prentsa, aldizkariak, liburuak,  
papergintza eta eskulanak  
Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77  
48150 SONDIKA (Bizkaia)

  
**Inmobiliaria  
ETORKI**  
Mungialde etorbidea, 4 bajo  
Tel. 94 454 50 53  
Móvil: 607 32 35 53 48160 DERIO

**HARATEGIA • URDAITEGIA**  
  
**VICTOR**  
ARTISANAL ELABORAZIOA  
Oskala ekoizten dugu:  
odolosteak, txorizoa,  
bistorra, solomokak...  
Plater aurrekoiznatu  
Goiri, 4 - 48150  
Sondika - Bizkaia  
94 453 16 17

**ASESORÍA**  
*Luis Fernando Aguirre, s.l.*  
Mateo Bidaurrazaga, 1  
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28  
48150 SONDIKA (Bizkaia)



## “Esperientzia berri baten beharra dut”

XABI ASTUDILLO | aukera berrien bila

Xabik 24 urte ditu eta Sondikakoa da. Laster, abentura berri bati emango dio hasiera. Irailean, bere auzokide batekin Australiara joango da. Gazteak bere asmoen berri eman digu.

a: Itsasne Zubiri

### Hasieratik hasiko gara. Zein da bertan duzun egoera?

Lehen Hezkuntzako maisua naiz eta psikopedagogia ere ikasi dut. Ikasturteak bederatzi hilabete baditu, nik hilabete bi baino ez ditut lanean eman. Lanean ibili naizen bitartean, pozik egon naiz, gustura, baina gero apur bat goibel zabilta, lan egin nahi duzulako eta aukerarik ez dagoelako.

### Futbol entrenatzaile ibili zara ikasturte honetan, eta ezinegon apur bat arindu da, beharbada.

Beno, umeak entrenatzen izan naiz Gorondagane Sondikako ikastetxean, eta, egia esan, oso pozik egon naiz. Itzel gustatzen zait umeekin lan egitea, eta irakasle lan egiteko oso aukera gutxi izan dudanez, behintzat arratsaldeetan lan honetan aritu ahal izan naiz. Dena dela, esan behar dut nire burua ez dudala gazte edo nagusien entrenatzaile ikusten.

### Eta irailean Australiara abiatuko zara. Aukera berrien bila?

Lehen esan dudan bezala, oso gutxi egin dut lan hemen, eta apur bat goibel ibili naiz. Abentura gustatzen zait eta esperientzia berri baten beharra dut. Printzipioz, bederatzi hilabeterako joango gara, eta gustatzen bazaigu eta dena ondo irtetzen bada, baliteke bertan denbora gehiago ematea. Ikasleentzako bisa atera dugu, Australiara ingelesa ikastera joango garelako. Baina esan digute han oso erraza dela lana topatzea, edozein ar-

harategia - urdaltegia  
**MIGUEL**  
ESPEZIALITATEAK:  
URDAIAZPIKOA  
ETA GAZIA  
Mikel Deuna, 7 • DERIO 48160 • T: 454 52 94

Nire Autocasion **NA**  
**IMPORTAZIOA ETA  
SALMENTA**  
GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA  
Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12  
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92  
www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

Jatetxea **SAN ISIDRO**  
EUSKO OKELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERO GOROGINTZA APARTEA  
**ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK**  
Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak  
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala  
Telefonoa 94 454 07 98  
Fax: 94 454 14 18  
Mungialde etorbidea, 25  
48160 DERIO

**MARMOLGINTZA  
GOYO**  
SUKALDE-GAINEKOAK OBRAK HILERRIAK  
Ugaldeguren 1 ind. 10-8 mabea  
48160 Derio, Bizkaia  
T: 94 454 82 93 - Faxa: 94 454 50 63

**KAFETEGIA  
IMAZI  
JATETXEA**  
Jata kalea, 2 • DERIO  
Tel: 944 54 29 56

**Carnicería  
Charcutería  
IMAZ**  
MUNGIALDE ETORBIDEA, 2  
TEL: 94 454 10 75  
DERIO  
Eskeirik asko  
etortzeagaitik



*"Australiara ingelesa  
ikastera joango gara,  
baina han lan egiten ere  
saiatuko gara"*

*"Gazteek oso  
aukera gutxi  
dugu balio duguna  
erakusteko"*

lotan. Hala bada, lan egiten ere saiaturik  
gara.

**Azkenaldian gazte asko dabilta  
bertatik alde egiteko aukera azter-  
tzen...**

Izan ere, oso aukera gutxi dugu balio  
duguna erakusteko; ez digute kasurik  
egiten. Gauzak nahiko txarto daude, hau  
tamalgarria da. Hala ere, baikorrak izan  
behar dugu, guztion ahalegina ezinbes-  
tekoa da krisitik ateratzeko.

**Laster hasiko duzuna ez da atze-  
rrian edukiko duzun lehenengo espe-  
rientzia.**

Bai, duela sei urte Mozambiken izan  
nintzen. Batxilergoa amaitu nuen eta ez  
nekien zer egin nire bizitzarekin. Abentu-  
ra bat bizi nahi nuen eta Mozambikera  
joan nintzen boluntario. Oso esperientzia  
ona izan zen. Halako lekuetan ikusten  
duzu jendea gu baino askoz zabalagoa  
dela, eta askoz zorionsuagoa. Ez dute  
ezer, baina gu baino askoz alaiago bizi  
dira. Eta haien arteko laguntasuna gure  
artean dagoena baino askoz handiagoa  
da.

**Esperientzia errepikatzeko asmo-  
rik? Hura bezalako beste leku batera  
joango zinateke?**



Australiara joateko erabakia hartu  
baino lehen, beste aukera batzuk azter-  
tzen ibili nintzen. Eusko Jaurlaritzak gaz-  
teei zuzendutako programa antolatzen  
du urtero, atzerrira boluntario joan daite-  
zen. Nik izena eman nuen programan,  
baina ez ninduten hartu. Entzun dut aurt-  
en gazte askok jo dutela programara...

Pena izan da, atzerrian boluntario hiru hi-  
labete emateko asmoa nuelako, eta gero  
bertan lan egiten gelditu. Baina, beno,  
etorkizunean aukera gehiago egongo  
dira horretarako.

**Bitartean, zorte on Australian!**

Mila esker! Harremanetan egon, eta  
berriak kontatuko dizkizuegu.



**EGUNEKO MENUA**  
lehenengo platera  
bigarren platera  
postrea  
ogia  
edaria  
**9€**

Bestorrene 5, Behea 48160 DERIO  
**T: 94 454 55 55**

**Bar TRIPPY**  
ZURE GIRORIK ONENA

Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun  
eta futbolinean jokatu, etorri zaitzez Trippyra, Deriora

Behoko Kalea Bajo  
DERIO



**MODA  
INFANTIL**  
**Tximeleta**

Gernikako Arbola, 8  
Telefonoa: 94 454 14 35  
Faxa: 94 454 38 26

48160 DERIO  
Bizkaia

# “Historian arakatzea gustatzen zait, nondik gatozen jakitea”

OSKAR BENEGAS | idazle berria

Kondairaren arabera, drakkar batek (haizearen sorgina) Eskoziako printzesa gaztetxo bat ekarri zuen Mundakako kostaldera IX. mendearen hasieran. Hura Oskar Benegas lezamarrak gaztea zela ezagutu zuen istorioa da, eta, hura, hain zuzen ere, hartu du abiapuntutzat bere lehenengo eleberria idazteko: *Brujas del viento*.



t: Itxaso Marina / a: Ainhua Arpide

**Zure opera prima dugu esku artean. Zelan sortu zen hura idazteko ideia?**

Egia esan, hasiera batean nik beste ideia bat nuen buruan. Erroak Bizkaian antzinatek zituen familiaren istorioa kontatu nahi nuen, eta XXI. mendean bizi den neskari buruz hasi nintzen idazten. Atzera egin nuen denboran, eta neska horrek eta XII. mendean protagonista den mutilak ezaugarri fisiko antzekoak zituztela kon-

turatu nintzen. Eta aspaldian ezagututako kondairaren printzesa eskoziarrak ere ezaugarri fisiko antzekoak zituela. Kondaira idazten nenbilen eleberraren abiapuntutzat hartzea otu zitzaidan.

**Izan ere, *Brujas del viento* askoz handiagoa den eleberraren zatia da; trilogia baten lehenengo liburua.**

Guztira 1.200 orrialde dituen eleberria dut idatzita, eta familia baten istorioa kontatzen dut, IX. mendetik XXI. mendera arte. Baina argitaratze-arrazoiak direla-eta zatitzeko aholkua eman zidaten eta lehe-

nengo emaitza *Brujas del viento* izan da. Berak bakarrik badu nahikoa garrantzia eleberria izateko.

**Kondaira testuinguru historiko zehatz batean kokatu duzu. Zer da fikzioa eta zer errealitatea?**

Printzesak Hannah Mac-Alpin du izena. Aita Eskoziako erregea zen eta familia barruko gatazkengatik hil zituzten bera, emaztea eta seme-alabak. Hannah bizirik atera zen bakarra da, eta erregearen aldekoek gaztetxoa leku segurura eramanez. Garai hartako informazioa biltzen ibili naiz, eta ez dut printzesaren izena topatu, baina jakin izan dut orduan Mac-Alpin familiak erreinatu zuela Eskoziari. Protagonistari Hannah jarri diot izena, garai hartan ohikoa izan litekeen izena dela pentsatu dudalako. Era berean, IX. mendean, Iberiar Penintsulan zegoen egoera aztertu dut, zein zen erresumarik garrantzitsuen eta abarrekoak. Eta asmatutako pertsonaiak testuinguru horretan kokatu ditut.

**Lan zehatza eta neketsua.**

Ez, Historian arakatzea gustatzen zaidalako, geu eta gure ohiturak nondik gatozen jakitea. Gainera, Ainhua nire emaztea historialaria da eta asko lagundu dit. Eta hainbat akats anakroniko zuzendu ere bai.

**Oguiza Hartz Klinika**  
Kirurgia eta inplanteak  
Ortodontzia  
Estetika eta hortzak zurriztea  
Protesi finko eta mugikorak  
Hortzaren tratamenduak  
Odontologia kontserbadorea  
Garbitasuna eta prebentzioa  
haur-tratamendua  
konponketak

Anguluri erparantzia, 1 • 48195 LARRABETZU • Telefonoa: 944558890

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zaintza BERRAK  
Logopedia  
Podologia  
Kinesioterapia

**clínica dental ZAINDUZ hartz klinika**

Txontemendi etorbidea, 9 - Loria | Antsoaga erakina | 48180 DERIO  
94 454 01 01 | 857 79 54 45  
info@dentatzaindus.com | www.dentatzaindus.com

**lurrindegia MAMEN mertzeria**

Golkalea, 6. Derio. 94 454 28 60 / 656 79 38 25



### Liburua zeuek editatu duzue, zergatik hau?

Eleberria 2008an hasi nintzen idazten eta 2011n bukatu nuen. Argitaletxeetara jo nuen eta istorioa gustatzen bazitzairen ere, trabak jartzen zizkidaten, apur bat luzea zela... baina ez zidaten benetako laguntzarik eskaintzen. Aspertu nintzen eta albo batera utzi nuen. Egun batean, Ainhoak esan zidan liburua mugitzeko ardura berak hartuko zuela, eta autoedizioko argitaletxeak bilatzen hasi zen. Azkenean, Bubok argitaletxearekin atera dugu liburua.

### Zelakoak izan dira jasotako kritikak?

Onak. Liburu erakargarria dela esan didate. Bigarren orrialdetik aurrera gauza asko gertatzen dira eta ezin zaio irakurtzeri utzi.


### Pozik?

Bai, baina beste diziplina batzuetan gertatzen den moduan, liburua berriro irakurri eta aldatuko nituzkeen gauzak daudela konturatu naiz, beste kutsu bat emango niekeenak... Uste dut egileak ez dituela inoiz liburuak bukatutzat ematen.

### Trilogiaren beste liburu biak noizko?

Goiz da horretarako, lehenengo eta behin, *Brujas del viento* zelan doan ikusi beharko da. Dena dela, buruan badituz beste istorio bi. Horietako bat ere bada mitologia eta kondairen ingurukoa, gaia izugarri gustatzen zaidalako; eta bestea gaixo batek kontatutako pasadizoa da, Gerra Zibilean gertatu zena.

*"Uste dut egileak  
ez dituela inoiz  
liburuak  
bukatutzat ematen"*



## Idazle bihurtu den medikua

Oskar Benegas medikua da ogibidez eta bokazioz, eta zaletasunak idazle bihurtu du. Izan ere, haurtzarora eta gaztarora liburuen artean gogoratzten ditu Oskarrek. Buruan Hollister familiaren abenturak ditu oraindik, Julio Vernerren eta Emilio Salgariren istorioak, bereziki hunkitu zuen *El camino* Miguel Delibesen liburua, Edgar Allan Poeren kontakizun ilunak, Umberto Ecoren eleberrak... Azaldu digutenaren arabera, istorio txikiak idazteko ohitura du, lana dela-eta, txostenak idatzi behar dituelako. Horregatik, ez zaio batere kostatu "idazluma" hartu eta *Brujas del Viento* idaztea. Horregatik, eta dituen irakurtzeko zaletasuna eta asmamen handia

ere lagungarri izan dituelako. Hala ere, esan digu ez duela idaztea ogibide bihurtzeko asmorik; idaztea zaletasuntzat duela, idaztea eta mendia.

*Brujas del viento* paperean eta formatu digitalean argitaratu da. Liburua edozein liburutegian eskura daiteke, baina autoedizioa denez, aleak irakurleek eskatu ahala argitaratzen dira. Eskaera egin eta eleberria 24 orduko epean ailegatuko da dendara. Bestetik, formatu digitala Libranda plataformari lotuta dagoen edozein liburutegian eskura daiteke.

www.oskarbenegas.com  
www.facebook.com/Brujasdelviento  
@oskarbenegas

**OSTEOPATIA-ZENTROA**  
ESKU-TERAPIAK  
*Lasai*  
Luis M<sup>a</sup> Asensio  
Osteopata  
Larrabari, 1 l. onja - 48160 DERIO  
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69  
osteopatalasai@gmail.com

*Leire Begoña*  
ILEAPAINDEGIA  
Unisex ileapaindegia  
Estetika  
Orduzagi jarraitua  
Laser depilazio  
Mungialde etorbidea, 20 DERIO  
T: 94 454 26 32

**LOREGARBI** GARBIKETA ZERBITZUAK  
Gutxi-ikusiak, orokortasun  
Auzokoen kumutatuak  
Mantentze garbi-ikusiak  
Bulegoak eta lokalak  
Olinpiko enbriko garbiketa  
Baiterak  
Zahar biltza  
Besalde Plaza, 1 - B<sup>a</sup> Aldekoa  
48160 DERIO (Bizkaia)  
loregarbi@euskalnet.net  
Tel: 94 406 49 92  
656 712 443  
Fax: 94 406 49 93

# “Irudia dena da gaur egun”

ALAZNE ETXEBARRIA | diseinatzailea

Batzuetan moda zerbait eskurazina dela ematen du: Paris, Milan, New York... Baina gure artean hezurharagizko diseinatzaileak ere badaude, eta Txorierrin, esate baterako, Alazne Etxebarria dugu haietariko bat. Gazte zamudioztarrak Bilbao Internacional Art&Fashion Lehiaketa irabazi du hezurrezko bildumari esker.





t/a: Gaizka Eguskiza

### Zer dela-eta aurkeztu zinen Bilbao Internacional Art&Fashion lehiaketa-ra?

Lehiaketa berria da eta urte birik behin egiten da. Goi-mailako lehiaketa da, oso diseinatzaile onak aurkezten baitira. Aurreko edizioan ere aurkeztu nintzen, apur bat beldur banintzen ere, ikasketetako bigarren mailan baino ez nengoelako, eta josten ere ez nekielako. Diseinu eskolan animatu ninduten. Oso esperientzia polita izan zen eta aurtan ere aurkeztea erabaki nuen. Urtebete eman nuen ideia garatzen, eta nire lana bitxigile bati aurkeztu nion berak gauzatzeko. Esperientzia ikaragarria izan da.

### Oso bilduma berezia aurkeztu ze-nuen...

Bai, animalien hezurrez egindako osagarrien bilduma. "Untitled" du izena eta hura egiteko, Marcel Duchamp artistaren eta Fernando del Paso poetaren arteko elkarrizketa hartu nuen abiapuntutzat. Ez da benetako elkarrizketa, nik asmatutakoa baizik, baina euren artean dagoen kontraesanak egokiak iruditu zitzaizkidan. Hezurren bidez zikinkeria adierazi nahi nuen, eta aldi berean, gozotasuna eta dotoretasuna. Arima adierazi nahi nuen hezurren bidez, eta haietan hitzak idatzi nituen. Epaimahaiak ederto ulertu zidan eta saria eman zidan. Ez nuen uste irabaziko nuenik, lana kontzeptualegia baitzen.

### Nondik atera dituzu hezurak?



Amak herriko dendetan eskatu ditu. Dendariek galdetzen zioten zergatik behar zituen hainbeste hezur. Gixarajoa! (kar, kar). Zenbait proba egin behar izan nituen, nahi nuena topatu arte. Hasiera batean, arrain hezurak erabili nituen, baina bigunegiak ziren eta apurtu egiten zitzaizkidan. Eta gero behi, txerri eta oilasko hezurak erabili ditut. Batez ere ornoak gustatzen zitzaizkidan, baina haiek ukitu etnikoa ematen zioten lanari, eta nik ez nuen horrelakorik nahi.

### Zer ekarri dizu saria irabazteak?

Sariak legitimitatea eman dit, orain benetan esan dezaket diseinatzailea naitzela. Askotan diseinatzaileok ez dugu benetan sinesten artistak garela, ez gaituzte profesionaltzat hartzen. Lehen trajeak-eta diseinatzeko eskatzen zidaten, baina ez nuen nire burua gauza ikusten. Orain bai, ordea. Beste alde batetik, hainbat lagun interesgarri ezagutu ditut lehiaketan: beste diseinatzaile batzuk, arkitektoak, lehiaketaren antolatzaileak, kazetariak... Sariari esker, masterra daukat hedabideekin. Eta sariak dirua ere ekarri dit, noski. Hari esker, nire buruan inbertitzeko aukera izango dut: webgunea eta txartelak egingo ditut, lan berriak sortzen ibiliko naiz...

### Beste lehiaketaren batera aurkeztu zara?

Bai. Bilbo mailan zabaldu zen beste batean ikaskide batzuekin batera egin nuen proiektua hautatu zuten. Gizonezko traje zuri bati geure ukitua eman behar izan genion, eta urdinez margotu, sorbal-



Bizkaiko Merkataritza Sustatzeko Kanpaina.  
CECOBIK, AMUBIK, Bizkaiko Foru Aldundiak eta  
BBK-k bultzatua.

**%20ko**  
**deskontua**

kalitate  
handiko  
koltxoietan,  
somierretan  
eta atsedeen-  
besaulkietan.

- 5 euroko **bonodekor** txartela BBK-aren orotarako kutxazainetan erosita, eta edozein kreditu/kargu-txartela erabiltzeko.
- Soilik **bonodekor** bereizgarria duten produktuetan.
- 2012ko maiatzaren 15etik ekainaren 30era bitartean.



**SUITE DELUX**  
MARKA ESCLUSIBOAK, ATSEDENERAKO

| Leioa                                                   | Derio                                 | Eibar                      |
|---------------------------------------------------------|---------------------------------------|----------------------------|
| La Avanzada 80.<br>(Bilborako norabidea)<br>944 316 516 | Derioko<br>Seminarioa,<br>944 545 147 | Errebal 19,<br>943 202 784 |



www.SUITDELUX.com

*“Sariak legitimitatea eman dit, orain benetan esan dezaket diseinatzailea naizela”*

dakoak handitu, prakak moztu eta lorezko estanpatua jarri genion.

**Bide zaila aukeratu duzu lan egiteko. Posiblea da modatik bizi izatea Euskal Herrian edo Estatuan?**

Niri kanpora alde egiteko esaten didate beti, baina nik ez dut nahi, hemen hainbat lan baitago egiteko. Ez naiz asmo handiko neska, eta modatik bizitzeko gauza banaiz, ni pozik. Hemen gauza politik egin ahal dira eta gure pentsamoldeak ireki ahal dira. Diseinatzaile gazteak egon badaude, baina gizarteak bizigarri zerbait behar du.

**Eta zeure denda irekitzeko asmoa edo ametsa duzu?**

Ez dakit denda bat irekiko dudan, baina beti izan dut etxe-tailerra izateko ametsa. Denda baino gehiago, beste gauza bat izan dut beti buruan, zerbait ezberdina: nire etxean lan egitea, tailerrean, eta etortzen zaizkidan bezeroak bertan hartzea eta neurritan lan egitea. Eta sortzen ditudan bildumak-eta denda arruntetan saldu. Estilismoa ere gustatzen zait. Nire ustez, irudia dena da gaur egun eta zaindu egin behar da.

**Lehiaketara osagarriak aurkeztu dituzu, baina berez, moda diseinatzen duzu...**

Diseinua orokorrean interesatzen zait: arropa, osagarriak, aulkiak... Nik erronkak ditut atsegin: bezeroa niregana etortzea, arazo bat azaltzea eta horri konponbidea topatzea. Oso sortzailea naiz eta sormenak mugiarazten nau. Eskolan esaten zidaten ideiak zabaldu baino gehiago *oka* egiten nituela.

*“Kanpora alde egiteko esaten didate, baina nik ez dut nahi, hemen lana baitago egiteko”*

**Baina zaila izango da gauza berriak asmatzea, ezta?**

Ia ezinezkoa da. Eta ideiak etengabe etortzen zaizkizu burura. Beti uste duzu gauza berriak asmatzen dituzula, baina lehenago edo geroago konturatzen zara dagoeneko beste norbaitek egin duela. Baina pentsatzen eta sortzen jarraitu behar duzu. Esango dute ez dakit nor imitatu duzula, baina eliteko sortzaile bat nahi gabe kopiatzen baduzu, horrek esan nahi du bide onetik zabiltzala.

**Estilismoan eta modan zara aditua. Txorierrin eta Euskadin, modernoak gara?**

*“Ez naiz asmo handiko neska, eta modatik bizitzeko gauza banaiz, ni pozik”*

Tira, Bilbo bada apur bat moderno, baina Txorierrin betiko janzkera jantzen dugu. Ezohiko gauzak jantzi ditudanean, begiratu egiten didate kalean. Baina gustatzen bazait, zergatik ez dut jantziko? Zenbat eta gauza arraroagoak ikusi, orduan eta normalago irudituko zaie denboraren poderioz. Are gehiago, agian zu ikusi eta gero, eurak ere ausartuko dira gauza bereziak jantzen. Nik Prada markaz jantzita ibili nahiko nuke egunero, baina ezin da. Jakin behar da nolako koloreak diren ondoen datozkizunak. Hori da garrantzitsua. Eta gero ausartak izan behar gara. Krisian gaude, ezta? Ba, kolo-





*“Oso sortzailea naiz.  
Eskolan esaten zidaten  
ideiak zabaldu baino  
oka egiten nituela”*

rez jantz gaitezen. Estiloa izatea zaila da, baina estilo propioa izan behar dugu, besteek pentsatzen dutenari jaramon handirik egin gabe. Bost axola zer onartzen duen gizarteak! Lehen txantxak botatzen zizkidaten, eta orain gutxiago. Eta nolako lekua, halako arropa: Erroman egon nintzenean, eraikinak-eta gehiegizkoak ziren bertan; baita erromatarrak ere, batez ere gizonezkoak: markako arropa, eguzkitako betaurreko handi-handiak, ilea atzerantz orraztuta.... Bat egiten zuten hiriarekin. Frantzia edo Ingalaterran, esate baterako, hemen baino jarrera irekiagoa dute estetikaarekin, gehiago zaintzen dute.



## Diseinatzaile zientifikoa

Alaznek Enpresa Zientzia ikasi arren, moda zuen benetako bokazioa. Gurasoek “etorkizuna izan ahal duen zerbait” ikastea gomendatu zioten, eta ikasketak amaitu zituenean, Udane bere lagunak animatu zuen bere zaletasunari ekitera. “Orain konturatzen naiz 18 urte nituenean hasi banintz diseinua ikasten, ez nukeela hain serio hartuko. Diseinua eta moda oso libreak dira, eta zorionez karrerak metodologia eman zidan. Diseinu eskolan zientifikoegia nintzela esaten zidaten, baina onuragarria da niretzat. Ikaskideak ni baino artistikoagoak dira, baina nik

beste ikuspuntu batetik ikusten ditut gauzak. Dena dela, denboraren poderioz, aldatu egin naiz eta gaur egun libreagoa naiz”.

Gazte zamudioztarrak INEDIn ikasi du, Bilbon. “Moda ikasteko ez dago leku arauturik, eta akademia pribatueta joan beharra dago. Lau urte eman ditut bertan, eta argi daukat ez naizela eserita geldituko inor nire bila etorri arte. Neure kabuz jarraituko dut gauzak egiten eta ikasten. Horren haritik, hasi naiz Javier Barroeta jostunarekin batera lan egiten. Berak goimailako jantzigintza merkea egiten du, “luxuzko *pret a porterra*”, bere esanetan. Mundu erreala nolakoa den ikasten nabil.

Eskolan arte-giroa dago eta hori oso polita da, baina eskolatik kanpo gauzak ezberdinak dira eta agian inork ez luke guk sortzen duguna jantziko. Oso gustura nabil Javierrekin”.

Alazne Zamudion bizi da, Aranoltza auzoko baserrian, familiarekin batera, baina txikitik Sopelan bizi zen. “Oporretan eta asteburuetan Txorierri- ra etortzen nintzen. Diseinatzen hasi nintzenean, baserria oso leku aproposa zela konturatu nintzen, bertan estudio handia neukalako. Beraz, duela bost urte etorri nintzen hona nebarekin bizitzera. Beti izan dut lotura Txorierriarekin: lagunak-eta Derion daukat, Sondikako kiroldegira joaten naiz, baita Zamudioko liburutegira eta Derioko tabernetara ere...”

48195 LEZAMA Bizkaia      Certifikazioa oinarria: 361

**S.T.I. LEGU**  
SERBIZIOAK: LEZAMA, BILBO, GORBEA

F: 94 455 64 17      T: 94 455 61 98

LIBURUDEN DENDA PAPERDENDA

**ZAMUDIO**

Gorbea kalea, 5  
Teléfono / Fax: 94 452 29 10 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

**makla**  
arkitektura

Teknoloki Parkuko Elkarte: 804 E - 107 B  
94 451 79 21      48160 Derio, Bizkaia  
653 06 366      estudio@maklaarkitektura.com  
620 080 11      www.maklaarkitektura.com

## Eskuko plana (2012-2014)



Esku-hartze Komunitarioko Zerbitzuak herritarren artean osasuna sustatzea eta biztanleriaren bizi-kalitatea zein gizarte-ongizatea hobetzea ditu helburu. Hori lortzeko, Esku-hartze Komunitarioko Zerbitzuak ESKUKO PLANA aurkeztu du.

### Esku-hartze Komunitarioko Zerbitzua

#### Funtsezko elementua

–Herritarren parte-hartzea

#### Helburua

–Txorierriko biztanleriaren osasuna bultzatzea eta bizi-kalitatea hobetzea

#### Bultzatu beharrekoak

–Mendekotasunetatik babestu  
–Jarrerak eta ohiturak sustatu

2011-2012 ikasturtean Esku-hartze Komunitarioko zerbitzuak aurrera eraman dituen ekintza eta programak ESKUKO plan berrian daude ikusgai. Honako hauek dira:

### Esku-hartzearen eremuak

#### Familia-eremua

**HEZI, KALE EGIN GABE:** Jokabide osasuntsuagoak sustatu, garapen psikologiko egokia lortzeko.

**HEZIKETA EMOZIONALA:** Inkomunikazioa ekiditeko jarraibideak eskaini, eta seme-alabengan portaera-arauak ezarri.

**SEME-ALABEkin DIZIPLINA POSITIBOA ERABILTZEKO EREDUAK:** Familiaren bizikidetzatza hobetu.

**SEME-ALABEN ESKUBIDEAK ETA EGINBEHARRAK:** Nerabezaroan gertatu ahal diren egoera arrisku-tsuak prebenitzeko gakoak landu.

**GURASOEI ZUZENDUTAKO HEZIKETA-TAILERRAK:** Seme-alabekin ditugun harremana eta komunikazioa landu, gatazkak konpondu, eta sariak eta zigorrak kudeatu.







## Eskola-eremua

### Haur Hezkuntza

**ANTZERKI PEDAGOGIKOA:** Eskola-osasunari lotutako ohiturak bultzatzea helburua duten euskarazko ikuskizunak.

**OSASUNA ETA KONSUMO TAILERRAK:** Ohitura osasungarriak sortu.

### Lehen Hezkuntza

**UMEEN GARAPEN-PROSEZUA:** Umeen garapen psiko-sexualaren inguruko hausnarketa egin, arlo horretan lan egin eta oinarrizko informazioa eman.

**OSASUNA ETA KONSUMO TAILERRAK:** Ohitura osasungarriak sortu.



### DBH

**FAMILIA-PLANGINTZA:** Plazerean eta osasunean oinarritutako heziketa afektibo-sexuala eman.

**DROGAZALE OHIEK EMANDAKO HITZALDIAK:** Drogak kontsumitzeak eta haiek gehiegi hartzeak dakartzaten osasun-arazoei buruzko informazioa eman eta arazo honekiko sentikorrak bihurtu.

**ZINE HEZIGARRIA:** Hainbat gai landu: droga-menpekotasuna, sexualitatea, bortizkeria...

**ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** Edari alkoholikoen kontsumitzeak eta haiek gehiegi hartzeak dakartzaten osasun publikoko arazoei buruzko informazioa eman eta arazo honekiko sentikorrak bihurtu.

**ZELAN EGIN AURRE GATAZKEI:** Sentsibilizatu umore, graffiti eta rap musikaren bidez.

**HEZIKETA AFEKTIBO-SEXUALA:** Sexuari buruzko elkarrizketa sustatu.

### Batxillergoa

**TOXIKOMANIEN PREBENTZIOA - EDARI ALKOHOLDUNEN ETA DROGEN ARRISKUA:** Alkohola eta beste droga batzuk kontsumitzeak dakartzan arriskuen berri eman eta haiekiko sentikorrak bihurtu.

**AZTERKETEK SORTZEN DUTEN ESTUTASUNA KUDEATU:** Urduritasuna behar bezala kontrolatzeko baliabideak eman.

**ELIKADURARI LOTUTAKO ARAZOAK PREBENITU:** Arazoak prebenitu eta haiek goiz detektatu: beldurrak, aldaketa fisikoak...

**ZINE HEZIGARRIA**

### Heziketa zikloak

**TOXIKOMANIEN PREBENTZIOA ALKOHOLAREN ARRISKUA HEZIKETA AFEKTIBO-SEXUALA ZINE HEZIGARRIA**

**GAITASUN SOZIOLABORALAK:** Irakasleekiko jarrera helduagoak sustatu.

**BIZIKIDETZA DEMOKRATIKOA, TALENTUA ETA LIDERGOA:** Generoari lotutako estereotipoak antzeman eta berdintasunezko balioei buruzko hausnarketa bultzatu.

**DROGEN ARRISKUAK:** Jarrera ardura-tsua bultzatu, drogei lotutako arriskuak ekiditeko.

## Komunitate-eremua

**EMAKUMEAREN OSASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA:** Emakumeei zuzendutako kanpaina, bizi-ohitura osasuntsuekiko eta nork bere burua zaintzearen garrantziarekiko sentikorrak bihurtzeko.

**TABAKORIK GABEKO NAZIOARTEKO EGUNA:** Tabakoaren kontsumoa prebenitzeko eta gaiarekiko sentikorrak bihurtzeko kanpaina.

**HIESAREN KONTRA BORROKATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA:** HIESarekiko sentikorrak bihurtu eta hura prebenitzeko kanpaina.

**NAGUSIEN JAIA:** Txorierriko nagusiak ariketa fisikoa egitera animatu eta haien gaitasun kognitiboak landu.

**AUTOESTIMU IKASTAROA:** Txorierriko herritarren autoestimua eta haien arteko komunikazio positiboa hobetzeko ikastaroa.

**GAZTEEN LONJAK ARAUTZEKO ORDENANTZA:** Txorierriko gazteen lonjak edo lokalak gazteen parte-hartzearen bidez arautu.

**TABAKISMOA GAINDITZEA:** Erretze-ari utzi nahi dioten guztiei laguntza eman.

## Aisialdi eta jai-eremua

**ALKOHOLEMIA AURREZAINITZEKO KONTROLAK:** Alkohola arduraz hartzea alkoholemia aurrezaintzeko kontrolen bidez sustatu.

**PRESERBATIBOAREN ERABILERA SUSTATZEKO KANPAIAK:** Txorierriko jaietara datozenak sexu-transmisiozko gaixotasunak eta nahi ez diren haurdunaldiak ekiditearen garrantziarekiko sentikorrak bihurtu, eta sexu-erasoak ekiditi.

# Akerrak prest jaietarako

Aurreko urteetan legez, Intxurreta Larrabetzuko jai-batzordeak egitarau oparoa antolatu dau andamariak eta emeteriak ospatzeko. Herritarrek antolatutako jai-egitaraua da, herriko lagunengan pentsauz egin dana. Izan be, jai-batzordeak ezinbestekotzat dau herritarren parte-hartzea. Horregaitik, prestatutako ekintzetan parte-hartzeko gonbidapena egin deutse larrabetzuar guztiei.

a: Lurdes Extebarria

Txupinazoa abuztuaren 14an botako badabe be, Futbol 7 Txapelketea, herri-afaria eta Kantu Lehiaketek eukiko dabez aurreko egunetan. Kantu Lehiaketaren haritik aitatu beharra dago han banaka, binaka, hirunaka zein hogeinaka hartu ahal dala parte. Gainera, instrumentuak zein grabatutako musikea erabil daiteke. Txupinazoa bota baino lehen, pala eta eskupeleta partidak egongo dira Larrabetzun, eta triatloi herrikoia be bai. Jaiak ofizialki hasi ostean, musikea, kirola, lehiaketak eta gastronomia nagusi izango dira herriko kaleetan.

Asto lasterketea ohiko ekimena da andamarietan. Baina aurten beste ñabardura bat emon deusie, eta lehenengoz egingo dabe hankabiko astoen eta karretilero itsuen lasterketea. Ekimena abuztuaren 16an, eguaztenean, izango da, eta egun horretan be kontzertua eskiniko dau Gaztelumendi abesbatzak, taldearen 20. urteurrena dala-eta.

Eguena umeei zuzendutako eguna izango da, ekitaldiz beteta egongo dana eta goiz hasi eta berandu amaituko dana. Goizean mendiko bizikleten martxea egingo da, eta umeek, gazteek, zaharrek, helduek zein ustelduek hartu ahalko dabe parte, kirola edozein adinetan egin behar dalako. Ostean, umeentzako jolasak, bazkaria eta antzerkia egongo dira.



Edozelan be, nagusiagoek be zer egin eta zertaz gozau eukiko dabe egun horretan. Halan, bakailao txapelketea egongo da, eta, arratsaldean, herriko koadrilek alkarregaz neurtuko dabez indarrak. Horrezaz gainera, goitibehera eta santxeski jatsiera eta kaleko antzerkia be izango dira. Bestetik, Akermari, Paskuala eta Matxin kalejiran aterako dira egunero, eta gauari

*“Herritarrek antolatutako jai-egitaraua da, herriko lagunengan pentsauz egin dana”*

erromeria talde honeek jarriko deusie musikea: Mikel Hats, Trikizio eta Drindots.

## San Bartolome

Emeterietan buru-belarri sartu baino lehen, San Bartolome ospatuko dabe abuztuaren 24an. Paella, briska eta ugela-xo-toka txapelketak antolatu dabez bari-ku horretarako, eta erromeria, jakina. Emeteriei abuztuaren 30ean emongo deutsee hasierea. Horreek abuztuaren 30etik irailaren 1era bitartean izango dira. Lehenengo egunean, egunean, marmitako eta mus txapelketak egingo dira, eta igoera Barrenetxera. Gauean erromeria egongo da Triki ta ke taldearen eskutik. Barikuan, orienting probea, bertso saioa, idi-probak eta erromeria egongo dira, besteak beste. Eta herri kirolak eta ume-entzako zirku tailerra, zapatuan. Haitzama erromeria taldearen ekitaldiak amaiera emongo deutse Larrabetzuko aurtengo jaiak.

**GOIZALDE**

**PELUKERIA**

**Estetika**

**94 455 81 44**

Anguleni 2, beheko Larrabetzu-Bizkaia

**LARRABETZUKO ESTANKOA**

Tabakoa, prentsa, loteria, kiniela...

Andra Mari kalea, 1 LARRABETZU

T: 944 558 110

**Miguel Angel Lekue, garraiolaria**

Larrabetzu

656 786 744

94 455 80 20





*Larrabetzuko Udalak  
jai zoriontsuak opa  
deutsuez herritar guztioi*



Larrabetzuko Udala

**FOTERI TABERNA**



Andra Mari Kalea, 22  
Teléfono 455 80 98

48195 LARRABETZU-Bizkaia



**LARRABETZU**  
☎ 94 455 81 97  
LOROÑO BEHEKOA  
(BIZKAIA)

**Karlos**  
pinturak

☎ 94 455 80 59  
☎ 94 433 63 83  
☎ 94 671 10 15



**Papera eta  
pinturak  
oro har**

Axileta, 10 (Asua errepidea) • 48195 Larrabetzu (Bizkaia)



**IRUSTA TABERNA**  
EGUNEROKO MENUAK  
eta GAUEZ  
MUSIKA ETA PARRANDA

LARRABETZU  
Tel: 94 455 84 77



Moro's Pub



**BERRESONAGA**  
S.L.

**LARRABETZUKO BATZOKIA**  
TABERNA - JATETXEA

ASBATESUNAREN ENPARANTZA, 3  
48195 - LARRABETZU (BIZKAIA)

**TELF. 94 455 71 88**

## ANDRAMARIAK

**Abuztuak 12, domekea**

–17:00: Futbol 7 Txapelketea.

**Abuztuak 13, astelehena**

–17:00: Futbol 7 Txapelketearen finala.

–21:00: Herri-afaria.

–23:00: Kantu Lehiaketea.

**Abuztuak 14, martitzena**

–12:00: Pala eta eskupeleta partidak.

–17:30: Triatloi herrikoa.

–20:00: Txupinazoa: txistulariak, Akermari, Paskuala eta Matxin.

–22:00: Diskotxoua, Xaiborregaz.

–00:30: Erromeria, Mikel Hats taldeagaz.

**Abuztuak 15, eguaztena**

–12:30: Kalejirea: txistulariak, Akermari, Paskuala eta Matxin.

–13:00: Pintxoak dastatzea.

–Herriko dantzarien erakustaldia.

–19:00: Hankabiko astoen eta karretilero itsuen I. Herri Lasterketea.

–20:00: Kantetan eta bertsotan, kale-rik kale.

–22:00: Gaztelumendi abesbatzaren 20. urteurrena: ospakizun kontzertua orkesteagaz.

–00:00: Erromeria, Triki taldeagaz.

**Abuztuak 16, eguena.****Umeen Eguna**

–11:00: Mendiko Bizikleten II. Martxea, ume, gazte, zahar, heldu eta ustelduei zuzendua.

–12:00: Kalejirea: txistulariak, Akermari, Paskuala eta Matxin.

–12:30: Umeentzako jolasak.

–14:00: Umeentzako bazkaria.

–14:30: Bakailao Txapelketea.

–15:30: Umeentzako antzerkia.

–18:00: Goitibeherak + santxeski luzea. Ostean, kalejirea plazaraino txikstulariak, Akermari, Paskualagaz eta Matxinagaz.

–19:30: Koadrilen arteko jokoak.

–20:00: Erromeria, Gure Etxean.

–22:30: Kaleko antzerkia: Amesetan bizi antzezlan, Trapu zaharra taldearen eskutik.

–00:00: Erromeria, Drindots taldeagaz.

**Abuztuak 24, barikua.****San Bartolome**

–14:30: Paella Txapelketea.

–17:00: Briska Txapelketea.

–17:30: Ugelaxo-toka Txapelketea.

–19:00: Erromeria.

## Jai-egitarauak

EMETERIAK  
(GOIKOELEXALDE)**Abuztuak 30, eguena**

–12:00: Txupinazoa eta kalejirea.

–14:00: Marmitako Txapelketea.

–17:00: Mus Txapelketea.

–19:00: Igoerea Barrenetxera.

–22:30: Erromeria, Triki ta ke taldeagaz.

**Abuztuak 31, barikua**

–11:00: Orienting proba.

–12:30: Kalejirea.

–13:00: Bertsolariak.

–17:00: Briska Txapelketea.

–19:00: Idi probak.

–22:30: Erromeria, Laket taldeagaz.

**Irailak 1, zapatua**

–12:30: Kalejirea.

–13:00: Herri kirolak, herriko kirolariak.

–18:00: Umeentzako zirku tailerra.

–22:30: Erromeria, Haitzama taldeagaz.




**SARRIKOLA  
OGITEGIA**

Euskal pastela  
Basemko ogia  
Bizkotxoak  
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu  
Tel.: 94 455 83 37  
619 78 58 84



**Aliprox**

*Ondo pasa jaietan!*

**INES  
JANARI-DENDA**

Iturrikoetxea, 3  
48195 Larrabetzu  
T: 94 455 84 33



**ETORKI TABERNA**

*Eguneroko menua  
Asteburuetan menu bereziak*

Andra Mari Kalea, 1  
Telf.: 94 455 81 95

48195 LARRABETZU  
(Bizkaia)



# Ilusioaren garaia

# Andramariak bertan daukaguz

Kirola, txapelketak, gastronomia, kontzertuak, mozorroak, jolasak, bazkariak... Basobaltz jai-batzordeak egitarau dotorea antolatu dau, herritar guztiek andramariakaz gozau dagien.



a: Asier Saenz

Lezamarrek San Antolinakaz emongo deutsee hasierea jaiei. Egun horretarako, "Lezamako Mugetatik" mendi martxea antolatu dabe herriko hainbat alkartek, eta herri bazkaria be egongo da. Azaldu-takoaren arabera, paella eskainiko da, eta txartelek hiru euro balioko dabe, aldeztu aurretik erosten badira Lezama eta Larra-betzuko dendetan eta tabernetan. Bost euro ordaindu beharko da bazkarian bertan hartzen badira. Txartelak eguerdiko ordu-biak arte erosi daitezke.

Txupinazoa irailaren 7an botako dabe, arratsaldeko 7:30ean. Txosnak gaueko 9:00etan zabalduko dabez. Egun horretan, Mozorro Lehiaketea egongo da, eta gaitzat marrazki bizidunak hartu dabez. Parte-hartzaileek 2x1 eukiko dabe jai-batzordeko txosnan. Umeentzako sariak kontzertuak hasi baino lehen emongo dira; eta nagusientzako sariak, Gaizka Peña-fiel musikariaren eta Vendetta taldearen kontzertuen artean. Gainera, afaltzeko, odolosteak eskainiko dira herriko tabernetan eta jatetxeetan.

Egun nagusia zapatuan ospatuko dabe. Goizean umeentzako jolasak izango

## Irailak 2. domekea. San Antolin

–08:30: VII. Lezamako Mugetatik Mendi martxea.

–10:00: VII. Lezamako Mugetatik lasterketa eta martxa txikia.

–10:30: Trikitilariak.

–12:00: Mezea eta kopaua.

–14:30: Herri bazkaria. Ostein, Briska eta Mus Txapelketak.

## Irailak 7, barikua. Odoloste Eguna

–18:00: Txorierriko Gazteen Futbito Txapelketearen finala.

–18:00: Lezamako Pelota Eskolako partidak.

–19:30: Txupinazoa. Ostein, Kurutze dantza taldearen emonaldia.

–21:00: Txosnak zabaltzea.

–22:00-24:00: Mozorro Lehiaketea. Gaia: marrazki bizidunak.

–24:00: Kontzertuak: Gaizka Peña-fiel + Vendetta + Gora herria.

## Jai-egitaraua

–Afaltzeko, odolosteak herriko tabernetan eta jatetxeetan.

## Irailak 8, zapatua. Andra Mari Eguna.

–11:00-14:00: Umeentzako jolasak.

–12:00: Mezea. Ostein, Kurutze dantza taldearen emonaldia.

–13:45: Bertsolariak, plazan.

–16:30: Goitibehera jatsiera.

–20:00: Atsoak dantzan antzezlanak, Pikor teatro taldearen eskutik.

–21:00: Txosnak zabaltzea.

–24:00: Kontzertuak: Zain + The kluba + Dj Ohian Vega.

## Irailak 9, domekea.

–09:30: Andra Mari VI. BTT Lasterketa, Zorribike alkarteak antolatua.

–12:00: Mezea. Ostein, Ekidazu abesbatza eta talde konbidatu baten emonaldia.

–14:00: Herri bazkaria, Zorritzketan euskera alkarteak antolatua.

–17:30: Pelota partida profesionalak, Pelota alkarteak antolatua.

–18:30: Xentimorik gabe antzezlanak, Ramon Agirre eta Inazio Tolosaren eskutik. Zorritzketan euskera alkarteak antolatua.

–19:30: *A tres tiempos* ikuskizuna, Ausartak antzerki taldearen eskutik.

## Irailak 10, astelehena. Bola-Leku-ko jaiak

–12:00-13:00: Izena emotea Paella Lehiaketan.

–14:30: Paellak aurkeztea eta sariak emotea.

–17:00: Umeentzako jolasak, Gazte-lekukoek antolatua.

–18:30: Txokolatadea.

–20:00: Berbenea, Basajaun taldeagaz.



dira, dantzen agerraldia eta bertso saioa. Uxue Alberdi, Xabi Paia eta Gorka Ostolaza bertsolariak bat-batean ibiliko dira, eta gai jartzailea Malen Amenabar izango da. Arratsaldean goitibehera jatsiere a eta antzezlan a egongo dira. Musikea Zain eta The klubak taldeek eta Ohian Vegak ipiniko dabe. Domeka goizean Zorribike alkar-teak prestatutako BTT Lasterketea egingo da, eta herri bazkaria, indarrak barritzeko. Bazkaria Zorritzetan euskera alkar-teak antolatu dau, eta txartelak herriko dende-tan eta tabernetan jarriko dira salgai. Bazkarira baserritarrez jantzita joatea eskertuko leukie antolatzaileek. Arratsaldean, pelota partidak eta antzezlanak egongo dira. Ospakizunak Bola-Lekura eroango dira hurrengo egunean. Besteak beste, Paella Lehiaketea, txokolatadea eta ber-benea izango dira.

*Egun nagusia  
zapatuan ospatuko  
dabe. Bertsolariak eta  
antzezlan a egongo  
dira, besteak beste*




**Baserritarren Alkartea  
Lezama S. Coop.**

Aretxalde, 21 BIS  
48196 LEZAMA  
☎ 94 455 60 16  
e-mail: lezama@fcae.org  
Bazkideak: 144

**Pentsu  
naturalak**

**BASALBEITIKO  
TXAKOLINA**

Bizkaito Txakolina  
Denominazio Jaurerria



Geltokiak: 37  
LEZAMA  
94 455 61 46

**GOIKO  
TABERNA** Taberna-jatetxea  
*Emiliano*

Menue berriak antzartzen • Eguneko menua eta karta  
Etzera orratzeko platerak • Jaurerriak eta edonak  
Itxakia antzartzen • Jantziak zabalak

R. Garaitza, 1 • Tfno. y Fax 94 455 41 10 • 48196 LEZAMA - Bizkai

**LEJARRENE JATETXEA**  
Garaitza auzoa, 102 • LEZAMA • T: 94 455 85 48



**LOTERIA LEZAMA**

BONOLOTOA LOTERIA PREMIOBOA 1-X-2  
SARITZARRA EUROMILIOIAK

GABONETAKO ETA ERREGETAKO LOTERIEN ERRESEIAK  
ZERBITZUA, ENPRESENTZAT, TABERNENTZAT, ETAB

ARETXALDE, 159 • 48196 LEZAMA (Bizkai) • TELEFONOA/FAX: 94 455 64 87

**LAPIKO/s.l.**  
Enbatazko materialak, Dekorazio



R. Garaitza, 67 • 48196 LEZAMA (Bizkai)  
Tf: 94 455 63 98 • 94 455 64 01 • Fax: 94 455 63 98

**ZORRIZKETAN**  
LEZAMAKO EUSKERA ALKARTEA

**EUSKARAZ BIZI JAIK**



**BATA BESTEAGAZ LEZAMARROK EUSKARAZ**  
Tel.: 94 455 60 76

**KIMA**  
*Landarak*

LANDARE APAINGARRIA

Geltokiak 59 • Tel.: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77  
48196 LEZAMA (BIZKAI)

**Club Hípico Aretxalde**

Pony club • Zaldiak ikastaroak  
Aisialdirako landak • Apolo zerbitzuak  
Salo • Txangoak • Animalien heziketa

**Telefona:**  
**IBON - 659 90 75 88**  
Aretxalde auzoa, 89 • 48196 LEZAMA



**am**

FORMACION Y TRADUCCIONES

INGELIS-ESKALA  
MAIA GUTIAK  
AZTERKETAK OFIZIAK  
GOSTO PRESTAKUNTZA  
GAI-TO-ORRETSKOA  
PRESTAKUNTZA ENPRESETAN  
ESKOLA KAMPKO KLASEAK  
ITZULPEN ZERBITZUA

www.am-formacion.com info@am-formacion.com

Garaitza 120 D  
48196 LEZAMA  
T: 94 455 64 89

Erremente 16  
48150 SONDIKA  
T: 94 453 64 08



## Goitik behera

Goitibehera Txapelketea ospe handiko ekimena izan da Lezaman. Azkena orain hamar urte inguru egin zan, eta igaz ohiturea barrero piztea erabagi eban Iker Zaratek, Iñigo Olazak, Aitor Elejagak eta Ander Pequeñok osoturiko taldeak.

t: Gaizka Eguskiza

Oso mutil gazteak dira eta, adierazita-koaren arabera, ez daukie modurik beste herri batzuetara joateko. Halan, aisialdia herrian bertan emotea pentsau eben eta goitibeheren ohiturea berreskuratzea. "Egun baten, goitibehera bat ikusi genduan Larrabetzu aldean dagoan baserri baten. Jaubeagaz berba egin eta goitibehera oparitu euskun. Handik aurrera hainbat lasterketatan hartu dogu parte, eta Lezamako jatsierea antolatzeke auke-rea be izan dogu". Gazteok herriko jai-batzordean dabilz eta gainerako kideek aho batez onartu eben euren proposa-mentea.

Txapelketea lauren artean antolatzen dabe eta Ikerrek, Aitorrek eta Anderrek

bertan be hartzen dabe parte. Iñigo taldeko managerra da. Goitibehereri jagoke-nez, mota askotakoak dagozala aitatu deuskue: pneumatikodunak, burdinazko-ak... Baina hareek errodamenduzkoak gurago ditue, "betikoak, dibertigarriago-ak eta ikusgarriagoak diralako". Ez, ordea, errazagoak egiten. "Pneumatikodunakaz, adibidez, ez dozu burua apurtu behar. Hiru gupil eta motor edo auto baten ardatza erabilita nahikoa da. Xaflari jago-zozanak baino ez dira egin behar. Gauzea aldatu egiten da errodamenduzkoakaz; burua gehiago apurtu behar dozu". Goiti-behera on bat egiteko, inportanteena gogoa eukitea dala dinoe, eta ha egiteko beharrezkoa dan prozesura moldatu. Hareen kasuan, goitibehera txukundu baino ez dabe egin behar izan: pintau,

lisutu, errodamendu barriak ipini... Behar-rotan 300 euro inguru jarri ditue. Aitor mekanikaria da eta prozesuaren zatirik handiena bere kontura egin da.

### Herrikoia

Esan deuskue ez dabela sariakaitik parte hartzen lasterketetan, batez be ibil-pideari erreparaten deusiela. "Lezama-koa eta Gernikakoa oso politak dira. Guk zaletasunagaitik hartzen dogu parte las-terketetan. Ondo pasetea dogu helburu. Gainera, parte-hartzaile gehienok alkar ezagutzen dogu eta adiskide artean gagoz". Aurten, ez dabe oraindino inon-go probatan jardun, alde batetik, egural-dia dala-eta egutegia atzeratu dalako, eta bestetik, hurbil daukiezan herrietako probetara baino ez diralako joaten. "Ez





dogu inoiz garaipenik lortu. Hasibarriak gara eta oso maila altua dago". Probak gehienbat Gipuzkoa eta Bizkai aldean egiten dira eta hareen artean Lezamako badoa lekua hartzen. "Federazinoko bat etorri zan igaz, eta ibilpidea egokia eta polita zala esan euskun, ez zala beharrezkoa ezer aldatzea. Lasterketea erraza dala uste dogu, bakotxak bere buruarengan izan behar dau konfiantzea". Proba Vive-ron hasiko da eta, azaldutakoaren arabera, ibilpidea hiru minutu inguruan egin daiteke.

Parte-hartzaileen kopurua lasterketea egiten dan hilebetearen eta herriaren arabera izaten da. Joan dan urtean, esate baterako, 37 lagun ibili ziran Lezaman. Gehienak Bizkaiko zenbait txokotatik etorritakoak izan ziran, eta herriko beste hiru-lau lagunak be jardun eban han. "Lasterketea aurtan Europako Txapelketan sartzeko proposamena egin euskuen Federazinotik igaz. Baina ezetz erantzun genduan, behar handia eta larregi arriskatzea dalako. Momentuz, lasterketak herrikoia izaten jarraitzea gura go dogu".



*"Errodamenduzkoak  
gurago doguz,  
dibertigarriagoak eta  
ikusgarriagoak diralako"*

*"Zaletasunagaitik  
hartzen dogu  
parte lasterketetan,  
ez sariakaitik"*

*"Federazinokoen  
esanetan, ibilpidea  
egokia eta polita  
dogu Lezaman"*

## Izena emoteko epea zabalik

Goitibehera jatsierea irailaren 8an egingo da arrastiko 4,30ean. Izena emoteko epea zabalik dago irailaren 2ra arte. Horretarako, mezu bat bialdu behar da helbide elektronikoa honetara: goitibeherak@hotmail.com. Mezuan izenabizenak. Zehaztu beharko dira zeintzuk diran NAN zenbakia, telefono zenbakia, goitibehera mota, eta parte-hartzaileek aseguru daukien ala ez. Lasterketan parte hartzeko, ezinbestekoak dira kasakoa janztea eta aseguru eukitea. Urteko asegururik ez daukien erea eukiko dabe eguneko aseguru egiteko. Aseguruak 10 euro balio dau, eta antolatzaileek azalduko deutsee parte-hartzaileei zelan atera behar dan. Sarietako jagoenez, aurtan 60 euroko sari berezia emongo jako herriko gidariari.



Uintsaga Ibaia Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net  
48160 - DEIÑO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net  
Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea



ATE IREKIEN  
JARDUNALDIA

(18.30etatik aurrera)

Apirilaren 19an  
Maiatzaren 3an  
Ekainaren 5ean

### BATXILERGOA

- Zientziak eta Teknologia

### ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizazio Teknika

### GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Teknikaria
- Produktzioa Programatzeko Teknikaria
- Automatizazioa eta Informatikako Sistemetakoa Teknikaria
- Salmenten eta Merkataritza esparruen Kudeaketako Teknikaria
- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrolako Teknikaria



## Busti zaitez Landabarrin

Joan den uztailaren 2an, Sukia SA eraikuntza enpresak Landabarri Kirolak kirol-komplexuaren lehenengo fasea inauguratu zuen Landabarri bizitegi-auzoan. Bi igerileku dira, bata nagusientzat, eta bestea umeentzat, solariuma eta aldagelak dituztenak, eta eraikuntza enpresa Derion egiten dabilen proiektuan interesa duten pertsona guztiak gonbidatuta daude haiek bisitatzerako. Bizitegi-auzoan 400 familia baino gehiago bizi dira dagoeneko.

Sukia eraikuntza enpresa 2007an hasi zen Derion eraikitzen, eta bi urte beranduago, lehenengo familiak hasi ziren guneari bizitzaren ematen. Prozesua aurrera doa eta, urterik urte, Landabarri bizitegi-auzoak aukera berriak eskaintzen jarraitzen du: kalitatezko etxebizitzak, naturalingurune lasai batean daudenak eta komunikazio onak dituztenak, zeinetan familia berriek, batez ere gazteek, erabaki baitute bizitzaren berria hastea.

"Familia berri hauek guztiek helarazten diguten ilusioa oso motor garrantzitsua da guretzat, eta guztiontzat hain gogorra den momentu honetan gure proiektuarekin aurrera jarraitzen laguntzen digute", aipatu dute Sukia enpresatik. Igerilekuen inaugurazioaren bidez, enpresak pozgarri handiagoa eman nahi die Landabarri bizitegi-auzoko familiei, eta etxebizitza-proiektu honetan interesa duten lagun guztiei gonbidapena egiten die aisialdi-gune honetan egun bat emateko, eta Landabarri bizitegi-auzoan bizitzea oso atsegina dela zuzenean ezagutzeko.







Landabarri Kirolak zazpi mila metro koadroko gunea da, ondoz ondoko fase-tan egingo dena. Horretarako, gimnasio bat eraikiko da, terrazak edukiko dituen kafetegi bat, paddel-pistak eta umeen-tzako gunek. "Igerilekuak lehenengo eta behin egin ditugu, familiari gehien gusta-tzen zaizkionak direlako. Eta bene-bene-tan, etxetik txankletak jantzita dituztela eta toalla sorbaldan daramatela igerile-kura doazela ikustea erabat inbidiagarria da". Igerilekuak irailaren 30era arte egon-go dira zabalik.

Landabarri bizitegi-auzoko bulegoan, zeina urbanizazioan bertan baitago eta aldi berean etxebizitza pilotua dena, bizi-

tegi-auzoaren maketa dago eta han proiektuaren neurria jarri dute ikusgai. Gaur egun, 60 etxebizitza berri eraikitzen dabilta, horietatik 36 daude salduta eta aurreikusi da lanak 2014ko lehenengo hiruhilekorako amaituta egongo direla. Hirurogei etxebizitzak hiru solairu dituzten bi eraikinetan daude atonduta, gara-jeak eta trastelekuak ere dituztenak. Etxe-bizitzek bi eta hiru gela dituzte, beheko solairuan zein Erdiko solairuetan, eta guz-tiek terraza dute.

Bizitza eroso eta lasaia da Landabarri bizitegi-auzoan. Familiek aire zabaleko guneez gozatzen dute, bizikletaz ibili ahal izateko, paseoa eman, igerilekuan bainua

hartu, edo 200 urte baino gehiago duen eta suspertu den harizti azpian irakurri. Eta hori guztia ikastetxeetatik, hondar-tzetatik, merkataritza-zonetatik eta Bilbo-tik oso hurbil daudela. "Gure enbaxadore-rik onenak berton bizi diren familiak dira, izan ere, hona bizi izatera etorri direneta-riko asko Landabarri bizitegi-auzoan ze-lan bizi den zuzenean ezagutzeko aukera izan duten familiak eta lagunak dira", azal-du dute salmenta-bulegotik.

Hori dela eta, Sukiak proiektua hurbi-letik ezagutu nahi duten pertsona guz-tiak gonbidatzen ditu estreinatu berri dituzten igerilekuez gozatuz han egun bat ematera.

*"Landabarrin bizi  
diren familiek  
izugarritzko ilusioa  
helarazten digute"*

*"Etxetik toalla sorbaldan  
daramatela igerilekura  
doazela ikustea erabat  
inbidiagarria da"*



# Kxo! smartphoneek badakite euskaraz

a: Elhuyar



Elhuyar Fundazioak euskara ikasteko aplikazio berri bat garatu du smartphone-etarako: kxo! Oinarritzko hiztegia ikasteko aplikazio bat da eta lau hizkuntzatan landu dute: euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez. Euskaraz ezer ere ez dakienari edo euskara apur bat baino ez dakienari ohiko egoeretan euskaraz komunikatzeko tresnak eskaintzea du helburu egitasmo honek. Horretarako, entzuteko ariketak, mintzatzeko ariketak eta irakurtzeko eta idazteko ariketak erabiltzen ditu.

Kxo! aplikazioari esker, erabiltzaileak modu azkar eta errazean ikasi ahal izango du euskara, Android edo iPhone plataformetan. Egokia da euskara ikasten dabilen edonorentzat, Euskal Herria bisitatzen duten turistentzat eta kanpoko ikasleentzat.

Elhuyar Fundazioak Moblang europar ikerketa-proiektuan hartu zuen parte, beste hainbat erakunderekin batera. Aplikazioa proiektu horretan ikertutakoaren emaitza da. Edukia, beraz, Moblang proiektutik hartu dute eta aplikazioaren garapena Anspearrek eta Eleka Ingeniari-tza Linguistikoak egin dute. Eusko Jaur-laritzak diruz lagundu dio proiektuari.

Kxo! Android Market eta App Store dendetan dago salgai hiru eurotan. Gainera, aukera dago demoa doan deskargatzeko. Elhuyarren webgunean topa daiteke aplikazioari buruzko informazio gehiago. Euskara ikasteko aplikazio honekin, Elhuyarrek dagoeneko sei aplikazio ditu smartphone-etarako egokituak: kxo! euskara ikasteko aplikazio bera eta Elhuyarren bost hiztegi.

## Twitter euskalduna

Maiatzean, Twitter-ek laguntza eskatu zien erabiltzaileei gizarte-sarea euskaratzeko. Lan horretan lagundu duten guztiek euskarazko interfazea erabili ahal izango dute laster, BETA bertsioan. Euskaraz gainera, Twitter katalanez, txekieraz, ukraineraz, grekoz eta afrikaansez ere izango da eskura-

garri. Gutxiengoan dauden hizkuntzei dagokienez, euskara gizarte-sare honetan gehien erabiltzen den bigarren hizkuntza da. Guztira, 13.000 erabiltzaile komunikatzen dira euskaraz. Aspaldi eskatu zuten gizarte-sarea euskaraz itzultzeko. Horretarako, #twittereuskaraz erabili zuten.

**ELORRIETA**  
**INSTALACIONES**

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 behea Derio 48160  
94 454 03 86

**639 57 98 48 – 639 58 25 47**

**eleizalde**  
kafetegia

Lainomendi, 7  
(Elizaren aurrean)

48160 DERIO  
Tel.: 94 454 52 88

**aldeko**  
**hortz klinika**  
Tel.: 94 454 15 87

**Anuska Prieto Aguilar**  
Odontologoa

Uribe 7, behea  
48160 DERIO (Bizkaia)

- Especialitate guztiak zentro bakar batean
- Aurrekontua doan
- Especialitatea: umeak





t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

Hauteskunde hotsak udate beroan entzuten hasi garan unean, barriro beti-betiko atazak plazaratzea gogaikarria be izan leiteke. Dana dala, atsoitiz zaharrak dino: *Txakurrak non mina, han mihia*.

Gutariko batzuk giro euskalduneari bizi gara: beharlekua halakoa daukagu; lagunak holakoak eta etxeak ez edoze-langoak. Euskal berben oihartzuneari biziteari normal deritxagu. Gu, orduan, euskal artaldekoak gara.

Beste batzuk erdal artaldea dira edo erdal artaldean bizi dira: bazkaria erdaraz jaten dabe; txikiteo denporan "aupa Athletic" gora behera, erdaraz edaten dabe. Euren artean bizi diran euskal ardiak be,

bekokorra erdaraz egiten behartzen dabez, nahiz-eta agur, *gora Euskadi* edo *kauen* zotz euskaraz erabili. Honeek gure erdal artaldeko dira.

Bada hirugarren artalde bat –asko berrogei urtetik beherakoak–, zeinek eskoletan edo ikastetxeetan ibiliak diran arren, *buenos días* esango deusuen eta ez inoiz *egun on*. Eskola orduetan burua euskaraz jorratu deusie, baina ez bihotza irabazi, zoritxarrez. Eta **nonok** maite ez

bazaitu, zelan eskatuko deusazu mosua? Bada zorigogorra, norberak *egun on* esan eta erantzuna *buenos días* hartutea gero! Batez be, dakizunean ez dala etorkin **ailegeu** barria.

Azken baten, azken finean, *buenos días* dinoan horrek, ondo ederto daki guk euskal ardiok ez daukagula ez euskara dakian erreginarik, ez presidenterik, ezta ertzainbururik be. Badaki *bidurrak jago-ten* dauela mahastia.

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA  
Santi Mami suzea, 1  
Tel.: 94 454 10 06  
Faxa: 94 454 12 15  
48170 Zamudio (Bizkaia)



**SANTI MAMI**  
ALBAILARITZA  
Nerea Pedrosa Cde. 517  
COOP. CANADERA ZAMUDIO DERIO  
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15  
Faxa: 94 454 12 15

**ATARRABI**



Errementeri, 14 - 48150 Sondika  
Tel. 944 531 928

**Goiri'78 s.l.**  
Zerbitzu ofiziala



Izarza Pol.  
48150 Sondika  
Bizkaia  
94 453 25 15  
94 453 39 31

Centro Dental  
**Txorierri** IMQ AEGON

Rocío Astorkia Bordegaray  
Kepa Herguedas Manso  
María Conde Bilbao  
Ainhoa Rodríguez Mella

Mitxine 6, bajo - 48150 - Sondika (peltoklaren aurrean)  
T.: 944 711 639 - Larrialdia: 670 985 885 - [www.txorierri.com](http://www.txorierri.com)

**GALAISIA** *Ehngabeko erdutea*

Estetika eta ileapaindegia  
94 453 04 85 - 94 471 10 51



Sabino Arana 1-3, SONDIKA

## Etxeko sukaldaritza

## Idar gisatuak

*Maite Lekerika, sukaldaria***Osagaiak (lau lagunentzat):**

- Kilo bat idar (freskoak zein izoztuak)
- Azenario bat
- Patata handi bat (dado txikietan ebagita)
- 200 g. pernil (takoetan ebagita)
- Kipula eder bat
- Berakatz-atal bi
- Orioa, gatza eta ur apur bat
- Ardao zuri apur bat

**Prestateko errea:**

Kinpulea, azanarioa eta berakatzak zuritu eta txikituko doguz. Orio-zurrustada bategaz erregosten ipiniko doguz, su ez-titan. Hamar minutu pasaten diranean, pernila botako dogu eta bost minutu gehiago itxiko dogu. Ondoren, idarrak eta patatak gehituko doguz. Gatz apur bat eta ardao zuria botako doguz, eta eltzeari estalgia jarriko deusagu. Beharrezkoa bada, ur gehiago botako dogu. Surtan eukiko dogu 20 minutu inguru.



## Panakota

*Maite Lekerika, sukaldaria***Osagaiak:**

- Litro erdi esne
- Litro erdi esnegain
- 75 g. azukre
- Koilarakada bat bainila-azukre
- Gelatina neutro sobre bi
- Txokolate egina

**Prestateko errea:**

Esne apur bat gordeko dogu, bertan gelatinea urtzeko. Bestea esnegaineagaz batera ipiniko dogu berotzen. Azukerea eta bainila-azukerea gehituko doguz. Irakiten hasten danean, gelatina botako dogu (ondo urtuta). Surtatik kendu, eta ondo eragingo dogu. Moldera bota eta epeltzen danean, hozkailura sartuko dogu, hotzitu arte. Gustukoa bada, txokolate apur bategaz serbidu.

BITXITEGIA - ERLOJU-DENDA

Ruben

Lehenakari Leizola Plaza, 5 - Tel.: 94 452 14 49

Zamudio (Bizkaia)

**TXORIERRI**

Inmobiliaria

Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia

Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11

txori-erri@euskalnet.net

enregaudik gerta

ARROLAKARITZA - TASAZIOA

ALOKATZEAK - ENKUALDATZEAK

SALDORREKETA

SEGUROS BILBAOEN AGENTZIA

yedra floristas

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia

Telefonoa: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

**ZAMUDIO MOTOR**

IDENTICA

94 452 1616

94 452 1624

Pol. Torrelagotti

Pab. 6, Bloque 3

48170 ZAMUDIO

BIZKAIA

ESPEZIALITATEA:

TXAPA ETA PINTURA

Consulting

Sondika s.l.

Sabin Askolizaga

Aseguru agentzia

Allianz

609 475 746

Milano, 6 beheko

48150 Sondika-Bizkaia

T.: 94 453 10 07

Faxa: 94 453 60 27

**pro audio**

SONIDUEN ADITUAK

Txori-erri etx. 15

48150 Sondika-Bizkaia

944 533 375

www.proaudiosondika.com

jose@proaudiosondika.com

- hi-fi
- nahigaztoa
- telefonio
- segurtasuna
- lehiaketa
- pertsonaltzatzea





## Berba zaharrak

Ezetz asmatu antzinako berbek zer esan nahi duten.

1. Marmite
2. Paraje
3. Asau
4. Ituxurie
5. Basea
6. Gesu
7. Ginarrea
8. Oratu

- A) Teilatutik jausten den euria
- B) Lapiko handia
- C) Urrun
- D) Lokatza
- E) Une laburra
- F) Heldu, eutsi
- G) Hurbil, gertu
- H) Erratza

**ERANTZUNAK:** 1B, 2G, 3C, 4A, 5D, 6E, 7H, 8F

## Sudokua

|   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
|   |   |   |   |   |   | 1 | 7 |
|   |   |   |   |   | 9 |   |   |
|   |   | 4 |   |   | 5 |   | 3 |
|   | 8 | 6 |   | 5 | 4 | 3 |   |
| 9 |   |   | 7 |   |   |   | 4 |
|   | 4 |   |   |   | 6 |   |   |
|   |   | 7 | 9 |   |   |   | 6 |
|   |   |   | 8 |   | 3 |   |   |
| 3 |   | 1 |   |   |   | 5 |   |

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 8 | 5 | 7 | 2 | 6 | 4 | 1 | 9 | 3 |
| 4 | 6 | 3 | 5 | 7 | 8 | 2 | 6 | 4 |
| 9 | 1 | 3 | 2 | 4 | 6 | 8 | 5 | 7 |
| 2 | 4 | 6 | 7 | 5 | 1 | 8 | 3 | 9 |
| 6 | 2 | 4 | 8 | 3 | 7 | 9 | 1 | 5 |
| 7 | 8 | 6 | 2 | 5 | 4 | 1 | 3 | 9 |
| 1 | 2 | 4 | 6 | 9 | 7 | 5 | 8 | 3 |
| 5 | 7 | 8 | 3 | 4 | 1 | 9 | 6 | 2 |
| 6 | 3 | 9 | 5 | 2 | 8 | 4 | 1 | 7 |



## Erakusketak

### Derio

- > "Cuadros en punto de cruz". Irailaren 4tik 28ra, Kultur Birikan.
- > "Nunca más (1936-1939)". Irailaren 7tik azaroaren 29ra, Kultur Birikan.

### Larrabetzu

- > Ibaialde. Irailaren 11tik 25era, Anguleri kultur etxean.



## Ikuskizunak

### Derio

- > John Carter filma. Abuztuaren 4an, 22:00etan, Koltiza plazan.
- > Alvin y las ardillas 3 filma. Abuztuaren 11n, 22:00etan, Sollube kalean.

### Zamudio

- > Sonrisas y lágrimas. Irailaren 6an, 20:00etan, Euskalduna jauregian. Izena emateko azken eguna: irailaren 4a.

### Larrabetzu

- > Mugikortasun iraunkorraren inguruko ipuinak (4-7 umeentzat). Irailaren 21ean, 18:30ean, Anguleri kultur etxean.

## Irteerak

### Txorierri

- > Ikastolen aldeko jaietara joateko izena ematea: irailean zehar.

### Zamudio

- > Baiona-Ziburu-Hendaia, urriaren 6an. Izena ematea: irailaren 28ra arte.

### Lezama

- > Europako mendiak. Irailaren 15ean eta 16an, Gailur mendi taldeak antolatua.
- > Kurtzeko II. BTT Igoera. Irailaren 15ean, Zorribike taldeak antolatua.

## Kirola

### Zamudio

- > Zamudio-Zamudio zikloturista, irailearen 15ean. Izena ematea: irailaren 14ra arte, udaletxean.

## Bestelakoak

### Sondika

- > Udal ikastaroetan izena emateko epea: irailaren 4tik 12ra, liburutegian.
- > Sondika Urban Circuit Saria. Irailaren 8an, 15:30ean, Sangroniz industrialdean.
- > Autorik gabeko Eguna. Irailaren 22an.

### Derio

- > "Derio Erakusleho-arte" Lehiaketa. Irailaren 20tik urriaren 20ra. Danerik Paraje elkarteak eta Udalak antolatua.
- > Tokiko agenda 21. Irailaren 20an, 19:30ean, Kultur Birikan. DerioKOMunikazioak antolatua.
- > Lore eskaintza. Irailaren 24an, 12:30ean, Uribe Parkean.
- > Internet oinarritzko ikastaroa. Izena ematea: irailean.

### Zamudio

- > Mugikortasun iraunkorraren astea. Irailaren 15etik 22ra.
- > San Martin jaiak antolatzeko batzarra. Irailaren 25ean, 19:30ean, Zamudiotoren.
- > Udal ikastaroetan izena emateko epea: irailaren 21era arte.
- > San Martin jaietako Kartel Lehiaketa. Lanak aurkezteko epea: irailaren 28ra arte, udaletxean.

### Lezama

- > Udal ikastaroetan izena ematea: irailaren 17tik 28ra, liburutegian.
- > Kurutze dantza taldeak antolatutako ikastaroan izena ematea: kdtleza-ma@hotmail.com.

### Larrabetzu

- > Udal ikastaroetan izena ematea: Irailaren 10etik 28ra, kiroldegian.
- > "Irakurketa kluba" umeengan irakurzaletasuna bultzatzeko proiektuaren aurkezpene. Irailaren 28an, 18:00etan, Anguleri kultur etxean.

**BAR RAFI**  
ESPEZIALITATEA PINTXOAK  
Rafael García Tejero  
Oiz Kalea, 5 - T: 94 406 08 08  
48170 ZAMUDIO (Bizkaia) - Mobilak: 607 406 613

**Patxi KOOP.**  
BANATZAILE OFIZIALA  
Mahon  
Sakeleko telefonoa: 667 67 73 00  
NEINVER pol. - Etxezarre kalea, 4  
48170 ZAMUDIO - Bizkaia  
T: + faxa: 94 452 25 87  
patxicoop@patxi.coop

**TXORIERRI MARMOLDEGIA**  
Sukalde eta bainugeletako harriak  
Faxadak • Añariak • Hilerriak  
Torrelarragoliti ind., 7 B P. - 2. nabea  
48170 Zamudio (Bizkaia)  
T./F.: 94 608 01 41-2

**RPM**  
MAYORISTAS INFORMATICOS  
ENPRESETARAKO INFORMATIKA  
SAREEN MANTENIMENDUA  
ZERBITZU TEKNIKOA  
Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio  
Tel: 944521544 - http://www.rpmmayoristas.com

**Peñasko**  
arraindegia  
Mendiko, 4  
48170 Zamudio  
Tel: 94 452 0808

**GORBEIA MERTZERIA**  
Gorbeia kalea, 7  
ZAMUDIO  
94 655 90 06





**LARRABETZU  
BIZIRIB**

**ETKEEN  
GURU DOGUZ  
JAIETAN**

ANDRA MARI KALEA  
TEL.: 94 455 84 64



**Remirez Instalaciones S.L.**

ENPRESA INSTALATZAILEA:  
BEROGAILUA, GASA ETA URA

Tel/Fax: 94 455 82 96 / 606 39 33 46  
E-mail: reinsta@euskalnet.net

Iturrikoetxe, 3  
48195 Larrabetzu (BIZKAIA)



**POL'TENA  
TABERNA**

Andra Mari  
Larrabetzu, Bizkaia  
tel.: 94 455 84 07

**MARIA LUISA TABERNA**



Eguneroko menua  
Asteburuetan menu bereziak

Arebale, 5 - behea | Tel.: 94 455 84 14 | Larrabetzu

**Hnos. Villegas** arraindegia



Andra Mari, 20 behea 48195 LARRABETZU  
Tel.: 94 455 71 42 Bizkaia



**LARRABETZU**

*Matrikula zabalik  
ikastegi homologatua*

Errebale, 7 Behekoa  
Tlf. 94.455.70.66

**MUSIKA ESKOLA** 48195.-LARRABETZU  
Derion, Institutoan

Ono paga Andra  
Mari eta Emeteriak

**kukubiltxo**



**kukubiltxo.com**  
e.posta: kukubiltxo@kukubiltxo.com

INGELESA  
(Lehenengo mailatik  
5.01. maila arte)

FRANTZESA  
TONERA  
EUSKARA  
GAZTELANA

ESKOLA LAQUINTEA  
(Lehen maila, 5.01. maila arte)

ENPRENTZAKO IKASTARORAK  
MAILA GUZTIK  
OHINETEGI MALGUAK

**IKASGELA  
AKADEMIA**

ETORKI  
ETA HIZKUNTZAK  
IKASTERA ANIMATU

Aita Patxi Ugalde, 12 - 48195 Larrabetzu Tel: 615 70 73 61 ikasgela@hotmail.com

**OKINDEGIA - GOZOTEGIA**

**T'XISPAMENDI**

Gaztelumendi, 1 - Larrabetzu (Bizkaia) - 94 455 89 35



ikasi  
eta landu

# euskara bizia



## Txorierriko AEK

- Euskara ikasteko zein hobetzeko
- Azterketak prestatzeko (1, 2, 3 / EGA)
- Mintzamina egiteko
- Izena emateko epea zabalik irailaren 3tik 28ra

94 454 39 67  
607 59 87 94  
txepetxa@aek.org



Gorena ikasteko  
para entendernos  
pour se comprendre

eman izena

www.aek.org  
902 362 294

